

tti pi-ttapa

235. zenbakia • 1998ko uztailak 30 • XVII. urtea

BASE MILITARRA BAZTANEN (1954-74)

Yankiak 20 urtez egondu ziren Gorramendin



Baztanen kolpe gogorra izandu zen amerikarren etorrera, denetara 400 soldadutik goiti sartu zirelako egun batetik bertzeira. Hala ere, besoak zabalik hartu zituzten baztandarrek, eta horren froga, amerikar eta hemengo nesken arteko ezkontza franko izandu zela garai hartan. **4**



Josu JUANENA, akordeolaria

“Munduko Txapelketan parte hartuko dut”

Doneztebar akordeolari honek 18 urte bertzerik ez ditu, eta dagoeneko bere lehen Munduko Txapelketa jokatu du irailaren hondarrean. Berriki, gainera, Ourense jokatu zen Espainiako 41. Akordeoi Saria eskuratu du. Berak dioenez, bere etorkizun profesionala akordeoiari lotua ikusten du. Egun Narbarteko akordeoi eskolan ari da, bertze 35 akordeoilarekin batera. **3**

6 Iritzia: Zer iduritzen zaizu TTIPI-TTAPA TELEBISTA?

Gure telebistari buruz zer iritzi duten galdegin diegu hiru ikusentzuleri.

28 Kirola: Urtxintxa txirindulari taldea

Orain dela urte batzuk arte jubencil mailara arte zeuden txirindulari taldeak eskualdean. Jendek eskas xamar zebiltzanez, adin desberdinetako txirindulariak bilduz talde hau osatu zuten.

TTIPI TXARTELA: Erosi zeurea eta erabili!



BELATEKO TUNELAK


Zati bat erori ondotik, hamar egunez itxia egondu da Belateko tunela

Duela 7 hilabete ideki ziren eta dagoeneko izan da lehen erorketa. Uztailaren 13an gertatu zen, eta hamar egunez bide zaharretik desbideratu da trafiko guzia. **10**





Berako Udalak besta onak
opa dizkizue Beratar eta
bisitari guziei



*Denon artean
denona dena
Gora
Leitzeko
pestak*

JUSTITIA,
ASKATASUNA
ETA PAKEA
LEITZARI ETA
EUSKAL HERRIARI

DATUAK.....

❖ Josu Juanena akordeolaria duela hemezortzi urte sortu zen Beran. Aita urroztarra eta ama sunbildarra ditu eta sei urte zituenetik Donezteben bizi da.

❖ Hamar urterekin hasi zen akordeoia ikasten, Angel Manuel Belio irakaslearekin. Geroztik zenbait sari eskuratu ditu.

❖ Azkena, uztailaren 5ean lortu du Ourensen, Espainiako 41. Akordeoi Sarian.

❖ Narbarteko akordeoi eskolan bertze 35 akordeolari gazterekin aritzen da, asteen bi egunez.

TESTUA:
AITOR AROZENA
ARGAZKIA:
ZALDUA

✎ Josu JUANENA PETIRENA *Doneztebeko akordeolaria*

“Munduko txapelketara ikastera eta esperientzia hartzera joanen naiz”

OURENSEN LORTUKO IZAN DA ORAIN ARTE ERDIETSI DUZUN SARIRIK GARRANTZITSUENA?

Bai, dudarik gabe. Junior nintzanean Iberiako Saria eskuratu nuen duela bi urte eta bigarrena izan nintzen urte bat lehenago. Senior mailan lortu dudan lehena izateaz gain, Ourensen bildu ziren Espainiako akordeolari onenak. Guzira 35 bat akordeolari agertu ziren. Seniorretan lau bertzerik ez ginen, hiru Euskalerritik joanen eta bertzea Ourensenkoa, baina maila hagitz altua zen. Espainiako txapelduna naizela erran daiteke, ez baitago neurri honetako bertze lehiaketarik.

SARI HONEK, GAINERA, MUNDUKO TXAPELETAN ARITZEKO ESKUBIDEA ERE EMANEN DIZU, EZ DA?

Bai, irailaren 30 eta urriaren 4a bitartean burutuko da Italian Akordeoiaren Munduko 48. Saria. Espainia ordezkatzu ni eta bertze bi lagun joanen gara Vicenza eskualdeko Recoare Terme herrira.

ZEIN HELBURUREKIN JOANEN ZARA ITALIARA?

Seniorretan parte-hartzaile gazteena izanen naiz, seguraski, eta honelako lehiaketa batean parte hartzen dudana lehen aldia denez, bertze herrialdetan da-



«Ourensen lehiaketa prestatzeko egunean zazpi orduz aritzen nintzen»

goen maila ikusi eta ikasteko intentzioarekin joanen naiz, bertzerik gabe. Aitzinean ibiltzea zaila izanen da hor, baina bertze urtetarako esperientzia hartzea ongi etorriko da. Gehien bat europarrak izanen gara, baina mundu osoko 25 akordeolari arituko gara.

ZENBAT DENBORA ESKAINI BEHAR ZAIO AKORDEOIARI MAILA

❖ *“Nire etorkizun profesionala akordeoiari lotua ikusten dut, kontzertuak eskainiz, lehiaketetan parte hartuz, irakasle bezala...”*


HONETAN ARITZEKO?

Denbora aunitz. Ourensen proba prestatzeko aste bat lehenago joan nintzen harat eta egunean zazpi orduz aritzen nintzen. Baina beti ez da honela, noski, normalean hiru bat ordu. Orain, Italiako urrunago dagoenez, la-
saixego hartuko dut.

AKORDEOIA BESTA GIROAREKIN LOTZEN DA HEMEN INGURUAN, BAINA KONTZERTU ETA LEHIAKETA SERIOETAN ERE ADITZEN HASIA DA...

Akordeoia edozein musika instrumentore-

kin parekatzen ahal da eta orkestratan ere gero eta gehiago ikusten da. Nire etorkizun profesionala akordeoiari lotua ikusten dut, baina ez herriko bestetan soinuaz, baizik eta kontzertuak eskainiz, lehiaketetan parte hartuz eta egunen batean irakasle bezala. Aurten COU egin dut eta datorren urtean akordeoi ikasketetan zentratuko naiz, buru-belarri. Aurten *Grado Medio* delakoa egin dut eta datorren urtean *Superior* hasi eta bi urtez egiteko asmoa dut.



Zaila da sinesten EEBek Baztanen base militar bat eraiki zutela Gerra Hotzeko denboretan, baina ezkerreko argazkiak, ordea, ez du batere dudarik uzten. Baztango jendeak, gainera, aski ongi gogoratuko ditu yankien auto ederrak edo beraien janzkera dotorea, izugarrizko kolpea izan baitzen herriko bizitza lasaiarentzat. Otsondoko lurretan jarri zuten basea, eta Goramakilgo lepoan, berriz, aireko komunikazioak eta hegazkinen joan-etorriak kontrolatzeko antenatzar horiek. Hala ere, egundaino ez da segurutik jakin zein izan zen yankien benetako eginbeharra.


TESTUA: ASIER GOGORZA
ARGAZKIAK: ZALDUA

Yankiek Gorramendi okupatu zutenekoa

Baztandar frankok oraindik aski ongi gogoratuko ditu urte haiek. Egun bate-tik bertzera, Otsondoko lurretan base militar erraldoi bat sortzen ikusi zuten, eta, hori baino harri-garriagoa zena, Elizondoko denda eta ostatuak soldadu amerikarrez bete ziren bapatean. Karriketan ere ez zen bertze elkarri-keta gairik; amerikarren luxuzko autoak zirela, beraien ohiturak, eta batez ere, zertara etorri ote ziren Baztan aldera?

Helburua: Frantzia kontrolatzea?

Gerra hotzaren urteak izandu ziren haiek. Urte hartaraino Francoren gaineko boikot internazionalen parte hartzen bazuten ere, 1953an Estatu Batuek jarreraz aldatu zuten, beren interesek hala aginduta. Francok estatu espainiarrean base militarrek jartzeko baime-na eman zien, eta Elizondokoa izan zen 1954ean eraikitzen hasi ziren base ugarietako bat. Eraikuntza erraldoi



Goramakilgo lepoan lau radar izugarri paratu zituzten.

honen funtzioa –inoiz ere garbi jakin ez baldin bazen ere– De Gaulle generala-ren ibilerak kontrolatzea zen, itxura batean. Izan ere, garai haietan Pentagonoak Frantziako buruarekin ez zuen batere erlazio onik, batipat, honek base amerikarrak ixtea agindu zuenetik. Hala ere, Frantzia kontrolatzeaz gain,

mundu osoko uhinak hartzeko gaitasuna zuten yankiek, Goramakilgo lepoan –1.081 m.ko altueran– paratu zituzten 4 pantaila erraldoieiei esker. Horietako haundienek, 2.000 m²ko azalera zuten, eta 15 pisuko etxe baten hainako altuera. Diotenez, Jaizkibeltik eta Landetako edozein txokotatik ikus



zitezkeen eguraldi garbiarekin. Radar iragarri horiek, Europa gainean etengabe ibiltzen ziren amerikar hegazkinei segimendua egiteko balio zuten, eta berdin aire espaziotik ibilki zen bertze edozein abioiren seinalea hartzeko ere. Gainera, komunikazio zentro garrantzitsua izan zen Otsondokoa, eta bertatik bideratzen omen zituzten Washington aldera Vietnamgo gudako gorabeherak, bertzeak bertze. Bertako langile gehienak telekomunikazioetan adituak ziren.

Harreman onak baztandarrekin

Baina baztandar gehienek ez zuen horren arrasto ttikienik ere somatu, yankiek Gorramendin eman zituzten 20 urteetan. Inork ez zien azaldu zergatik etorri ziren honat, ezta zergatik aldegin zuten ere. Beren begiek in ikusten zutena, ordea, aski zen denak harri eta lur uzteko. Arraza beltzeko gizasemeak, futbol amerikarra, edota txiklea bezalako xehetasunak guztiz ezezagunak zituzten ordurarte. Soldaduak laster sartu ziren hemengo jendearekin harremanetan, eta baztandarren konfidantza irabazi zuten zenbait keinu eginez. Horrela, eguberrietan erregaluak egiten zizkieten Elizondoko haurrei, eta familia behartsuenei jatekoa ere emankatu zieten. Gerora, baztandar neska aunitz espotuz zen soldadu amerikarrekin.

Miguel Gil elizondarrak Mendi ostatuko jabea zen denbora haietan. Hura zen, du-darik gabe, amerikarrek gehien maite zuten txokoa, eta basean ez zeudenean, goizeko ordu ttikiak arte egon ohi ziren bertan bilduta. Berak erran digunez, yankiak arrotz ongi integratu ziren baztandarren artean, eta herriko bizitzan parte hartzen saiatzen ziren. Diru aunitz ibiltzen zuten eskuarteetan, eta parte handi bat whisky-an gastatzen zuten. «Ostatuaren atzekaldean barra ttiki bat paratu genuen beraien-tzat bereziki, eta erran behar dut hagitz ongi portatzen zirela. Espainiar abiazio-koak, soldadu amerikarrak eta sub-ofi-

«Gaur egun inork ez luke erranen han base militar bat egondu zenik»



Zuk bertatik bertara ezagutu zenuen Gorramendiko base militarra. Zein zen zure eginkizuna?

Nik 1971etik 1973ra egin nuen soldaduska han. Espainiako aire-erj-

zitoan ginenon betebeharrak amerikarren instalazioak zaintzea zen. Batzuk beheko eraikuntzak kontrolatzen gelditzen ziren, eta bertzeak goiko partean. Goiko partea diozunean, pantaila erraldoiak zeuden tokiaz ari zara?

Bai. Goiko parteari gune teknikoak edo "troppo" a deitzen zioten. Hangoa puskaz mugatuagoa zegoen, han zorrotzagoa zen zainketa. Noizbait sartu izan ginen barrenera, guk horretarako baime-nik ez genuen arren. Hango motor eta turbinek ateratzen zuten zarata!

Oroitzen naiz pantailen aitzinean ez ibiltzeko erran zigutela, erradioaktibitatea zegoelako edo... baina guk orduan idearik ere ez genuen zer ote zen erradioaktibitatea. Pantaila goitu eta argazkiak ateratzen ibiltzen ginen.

Badakizu zertarako erabiltzen zuten hango makineria guzi hura?

Han radarrak eta gauzak zeuden zerbait kontrolatzeko, baina gu ez ginen sobera arduratzen horretaz. Soldaduska egitearekin nahikoa genuen...

Nik ez dakit lur azpian zer izanen zuten, baina komentatzen genuen aunitz han zerbait izanen zutela gordea. Badakizu noiz nabaritzen genuen? Ekaitza zelarik. Kristoren zartadak ematen zituzten tximistek. Nik goardiak egin izan ditut ekaitza egunekin, eta minutu erdiro eror-

tzen ziren tximistak. "Troppo" an su artifizial ikusgarriak izaten genituen.

Amerikarrek 1974ean aldegin zuten. Joan baino lehen, ordea, base guziaz desagertarazi zuten.

Izandu ziren bertan mendiko hotelen bat montatzeko proposamenak, baina amerikarrek ez zuten arrastorik utzi nahi. Egun batetik bertze dena ez-tandara-zi zuten, eta ez zuten harri bat bertzearen gainean utzi. Gaur egun inork ez luke erranen han base militar bat egondu zenik. Guztiz garbia dago tokia.

Zer gogoratzen duzu amerikarrak Elizondora ailegatu ziren garaietatik?

Bere garaian, basea ideki zenean, ni haur ttiki bat nintzen, 7 edo 8 urte bertze-rik ez nuen izanen, eta oroitzen naiz gure ilusiorik haundiena amerikarrei txiklea eskatzea zela. Arratsaldetan Elizondoko futbol zelaira joan ohi ziren futbol amerikarrean aritzera, eta txiklea ahoan ibiltzen ziren beti. Gu, berriz, txiklea eskaka ibiltzen ginen etengabe, eta pakete bat ematen ziotenari, hura bihurtzen zen amerikarren lagun haundiena.

Nolakoa zen amerikarren eta baztandarren arteko elkarbizitza?

Elkarbizitza ona zen, hagitz ongi lake-tu zuten. Nik gogoan dut familia behartsuenei hilabetean behin esnea-hautsa ematen zigutela, eta baita gasna latan. Haiek emandako hainbertze esne potojan ditugu guk ttikitan! Eguberrietan, berriz, erregaluak egiten zizkieten herriko haurrei.

Bertzalde, militar franko Elizondoko emakumeekin espotuz zen bere garaian, eta gaur egun oraindik badira horrelako bikoteak. Batzuk Baztango neskekin Estatu Batuetara joan ziren. Horiek oraindik noizbehinka etortzen dira honat bisitan.

zialak kontatuta 400 bat lagun izanen ziren denetara, eta hori mantentimendukoak kontuan izan gabe».

Arrastorik utzi gabe desagertu

Basera itzuliz, aipagarria da hotel baten parekoa zela hango eraikuntza; joku-gela, zinea, edantegia, kalefakzioa... denetik zutelako han. Horretaz gain, han bertan zentrale elektriko bat sortu zuten militarrek, Donostia osoa energia indarrez asetzeko hainako ahalmenarekin. Urtean 3 edo 4 aldiz, 18 kamioiko karabana bat goitzen zen Gorramendiraino, behar zu-

ten errekin eramatera. Gasoila lur azpiko ontzi erraldoietan gordetzen zuten, eta gaur egun oraindik han segitzen omen dute, lurpean. Diotenez, ez dira kasualitate hutsa Otsondo aldean gertatzen diren ekaitz elektrikoak.

Otsondoko kaxkotik zenbait kilometrotara, base amerikarra izan zen tokia aurki daiteke pista segituz, baina han ez da yankien baterre arrastorik gelditzen gaur egun. 1976. urtean, izan ere, "goma 2" az ez-tandara baitzituzten eraikuntza guztiak. Yankiak etorri ziren bezalaxe aldegin zuten, ixil-ixilik. ■

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 6.850 ALE

Argitaratzailea: ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA

Tfnoa: 948 63 11 88

Faxa: 948 63 12 91

Internet:

<http://www.jalgi.com/topagunea/ttipi-ttapa>

e-mail:

ttipi-ttapa@topagunea.jalgi.com

Zuzendaria: Aitor Arozena. **Publizitatea:** Miren Karmele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor Arozena, Asier Gogorza, Joxemanuel Irigoien. **Administrazioa:** Amaia Goia. **Erredakzio taldea:** Pello Apezetxea, Juainas Paul, Bittori Telletxea. **Berriemaileak:** Joseba Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Saizar, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Patxi Otxandorena, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Pablo Mendiburu, Franc Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Mixel Gerendiain, Jacqueline, Elixabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Aitor Arozena, Asier Gogorza.

Kolaboratzaileak: EHNE Nafarroa, Mikel Bezunartea, Joxe Javier Etxeberria...

Inprimategia: Gertu.

ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzukizunik.

Erakunde Laguntzaileak: Bera, Leitza, Goizueta, Areso, Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi eta Sarako udalak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerreka Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkar-tea...



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Zer iduritzen zaizu TTIPI-TTAPA TELEBISTA?

Bertze kate guzien artean TTIPI-TTAPA TELEBISTAK bere tokia duela iruditzen zait



M^o Paz PETRIKORENA
Iganzi

Ia egunero ikusten dugu gure etxean TTIPI-TTAPA TELEBISTAK. Gehienetan arratseko saioa, afaldu ondotik tenore ona delako guretzat. Hala ere, zenbaitetan eguerditan ere ikusten dut. Teletestoa ere ikusten dut batzutan baina auniztan errepetitzen denez ez naiz horretan sobera erreparatzen. Bertze kate guztien artean TTIPI-TTAPA TELEBISTAK bere tokia baduela iruditzen zait, eta zergatik ez? Hemengo berriak hartzen dituen telebista bakarra da eta hurbilena guretzat. Telebistaren bidez ikusi daitezkeen inguruko herrietako erreportai, besta, erromeria, etab... dira programaziotik gehien gustatzen zaizkidanak. Ematen du inguruan daudela eta denak ezagutzen ditugula, baina auniztan ez ditugu ezagutzen eta modu honetan ikusteko aukera dugu. Bertze alde batetik erranen nuke emisioa labur xamarra iruditzen zaidala, baina telebista hasi berria dela kontutan hartuta eta dirulaguntza aldetik trabak dituztela ere, denborarekin eta beharbada den laguntzarekin programazio aldetik hobetuko dela pentsatzen dut.

Nahiko harrিতua gelditu naiz, espero nuena baino maila hobea duelako



Kotte ETXEPARE
Lesaka


Egia erran nik ez dut sobera ikusi, batez ere Sanferminetako programak segitu nituen, baina ikusi dutenagatik nahiko harrিতua gelditu naiz, beharbada espero nuena baino maila hobea duelako. Herri telebista bat izateko maila on xamarra duela iduritzen zait. Bertzalde, gaur egun dauden kate guzien artean lekua baduela uste dut, hemen inguruko gauzak ematen dituztelako, eta euskaraz gainera. Guk Koxkila ostatuan egunero paratzen dugu, 9etan, lehenbiziko informatiboa ikusteko. Sanferminetan, adibidez, ordu horretan musika kentzen genuen eta telebista ikusten egoten zen jendea, aski gustora. Izan ere, hemengo berriak hartu eta telebistan jende ezaguna agertzea aunizt eskertzen da. Orain sortu berria izaki, izanen dira gauzak falta direnak, baina joanen da osatzen poliki-poliki. Orain arte ikusi dudaren arabera, 7 bat jarriko nioke TTIPI-TTAPA TELEBISTARI.

Zonalde honetako gauza aunizt ikasten dituzulako gustatzen zait



Nati MARITORENA
Bera

Lehenbizian ez genuen ongi hartzen, ez dakit zergatik, baina orain hagitz ongi ikusten dugu TTIPI-TTAPA TELEBISTA. Egunero ikusten dugu arratseko 9etan, eta auniztan edozein tartetan ere begiratzen dugu ea nor diren urtebetetzeetan... gainera hagitz musika polita du teletestoa. Gure neska hauek Gozategi dela edo bertze ez dakit zer dela, beti aditu nahi izaten dute. Gure atta, berriz, adintua da eta egoten da hareri begira. Behin ikusi zuten bere semea: "Hara Joxe non den!" erraten zuten. Guk ohitura dugu ETB ikusteko, eta tarteka pelikula bat dagoenean edo, taka eman eta TTIPI-TTAPA paratzen dut, ez baititut sobera maite pelikulak. Informatiboak interesgarriak iduritzen zaizkit, hemen zonalde honetako gauza aunizt ikasten dituzulako. Duela gutti Gazte Jokoak ematen ari zirela gure neska agertu zen han tartean. Beharbada gehien gustatzen zaidana urtebetetzeak dira, hagitz poliki paratuak dira. Nik uste gero eta gehixeago joanen dela denborarekin, oraindik berria baita. Nota bat jartzekotan, 8 bat jarriko nioke orain arteko lanari.



ttipi-ttapa fundazioak Europako Batzordearen dirulaguntza jaso du

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:


• Asteleheneetik asteazkenera 9-13tara eta 16-20tara
• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., © 948133328•133346. Faxa: 948133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ☛ Langile Autonomoak
- ☛ Nekazariak eta mendi-langileak
- ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☛ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☛ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☛ Diru-laguntza ezberdinak
- ☛ Kontabilitateak
- ☛ IVA eta IRPF
- ☛ Errenta aitopenak
- ☛ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- ☛ Bideragarritasun planak

BOTA BERTSOA

*Inguruko besten etorrera***Igor LASAGA (Berako Betso Eskola)**

Neurria: Zortziko Haundia

*Orain artean dantzalekuek
bete dute besta gula
baina dakigu dagoeneko
uda gainean dugula
herriko bestek dantzalekuei
egingo diete burla
jakina baita herriko bestak
xarma haundia badula
okerrena da Bordatxok bere
ateak ixten ditula*

*Gure bestetan jendea dabil
dirudila arratoia
hustu nahirikan trago bakarrez
ardoaren garrafoia
hori lortzean bihurtuko da
gau horretako heroia
baina agian bihur liteke
alkoholaren morroia
besta sasoian ikusi ohi da
bakoitzak duen sasoia*

IGANTZI, 1998KO UZTAILA

OSKAR TXOPERENA



ttipi-ttapa
Ameriketara
bidaltzea
erdi
prezioan
gure
bitartez

Franko Kuntzertatari esker, aldiak gure bidali
ezkero, zuk bidaltza baino erdi prezioan bestako zaizu.

Iparraldetik deitzeko 19-34
Hegoaldetik deitzeko **948631188**

Juanjo Txoperena

Juanjo laguna, lagun fin, lagun eskuzabal, lagun leihala: Zeinek erran behar ziken, apirilaren 14 madarikatu hartan, isil-isilik joan hintzen harrez geroztik, ez genikela hire itzal luzea lganztin barna gehiago ikusiko? Zeinek erran behar ez genikela hire furgoneta xuria –eskin guzietara ailegatu ezinean, baina beti mantsomantso– herriko karrikaz-karrika berriz ikusiko? Zeinek ez genikela puruz hornituriko hire irrifarrak gehiago goxatuko?

Ez duk erraza egunotan burutan dabilkigun zurrunbilotik deus garbirik ateratzea. Are guttiago papereratzea. Hainbarte urtez elkarrekin bizitako pasadizo, gertakizun, lan, neke... ezin orri xume batean sartu. Ziur egon haldi, halere, zurrunbilo horretan sareak bota ezker, bi gauza hauek ez hitukela faltatuko: Samina eta eskerrona.

Samina, herrian eta lagunartean utzi duken hutsunea bete ezina dukelako, eta, agian, hire lana tenorez eta behar bezala eskeretzen jakin izan ez dugulako. Eskerrona, ematen ahal huen gauzarik ederrena eman digukelako, beti eta baldintzarik gabe: hire adiskidetasuna eta hire lanerako gogoia.

Har ezak atsedean, lagun. Har ezak atsedean, herri ttiki honek eskeintzen ahal diken ohore eta maitasun guziaren ohatze xamurraren gainean.

IRAKURLEAK MINTZO

publikoa Nafarroan erabat erasotuta geratuko litzateke, pribatuarentzat guztiz mesedegarri den bitartean.

Ezin dugu ulertu, Batxilergoak bezala, derrigorrezkoak ez diren ikasketak, nola izan daitezkeen osoki subentzionatuak pribatuan, estatuko beste herrialdeetan gertatzen ez den bezala, eta aldiz beste ikasketa maila batzuk (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta 2. Hezkuntza diren bezala) diru laguntzak faltan izatea; beharrezkoak dituen materialak erosteko, garbitasun neurriak arazotzeko, ordezkioak behar direnean izateko eta aniztasunari behar duen laguntza emateko, besteak beste.

Irakaskuntzako dirulaguntzak nahikoak ez diren bitartean, derrigorrezko hezkuntzari lehentasuna eman behar zaiolakoan gaudela.

Besterik gabe, jaso ezazue agur bero bat.

DONEZTEBEKO DBHKO
KLAUSTROKO PARTAIDEAK
(27 SINADURA)

**OHARRA:**

*Iritzi ezberdinek
tokia izan dezaten,
ez da komeni
makinez idatzitako
25 lerro baino
luzeago idaztea
gutun hauetan.
Idatzi duenaren
izen-deiturak,
telefonoa, helbidea
eta Nortasun
Agiriaren fotokopia
agertu beharko
dira. Laburtu
beharra izanez
gero, **ttipi-ttapa**
bere esku izanen du
horretarako
eskubidea.
Ez dira
argitaratuko beren
nortasuna agertzen
ez digutenen
iritziarik.*

Elkarbizitza hobea behar dugu!

Berriz ere, Areso inguruko en lotsemangarri izaten ari da eta, berriz ere, alkatea da, aurre-aurrean agertzen ari dena, herria modu diktatorial eta kazikilean eramateko bere nahiean. Oraingoan, Guardia Zibilar deitu dio. Arazoa non dagoen badakigu, eta oraingoan aitzakia zein izan den ere bai: San Pedroetan argia hartu ahal izateko entxufe baten erabilera. Eta "arazo" bihurtutako gorabehera horrek protagonista izan diren (gazteak) arteko konponbidea eskatzen zuen. Neurritz kanpoko da Guardia Zibila ekartzea, eta horrela jaiak zapuztea.

Alkate Jauna, lotsagarri eta triste da. Askatasun bijilatuan gaudela iruditzen zaigu, eta zu izan zara hori eragin duena. Gazteen aurkako zer nolako informazio kriminalizatzaile eman ote diozu Guardia Zibilar hain azkar eta gogor etortzeko?

Dena den, herritarrok ezagutzen dugu bertako gazteei buruz duzun iritzia: denak galduak daudela, dozena erdi bat ezik, horien artean, nola ez, zure bi seme-alabak.

Nahikoak dira probakazio eta tentsionamendua! Elkarbizitza hobea bat behar dugu eta horretarako, bene-benetan, erretiratzea eskatzen dizugu, eta jubilazioaz goza dezazula, merezi baituzu bizitza osoan lanean igaro ondoren. Utz ezazu herriaren etorkizuna pertsona irekiagoen esku, oraingo mentalitatea dutenen esku, eta, noski, bereak ez diren ideiak ere onak izan daitezkeela uste dutenen esku.

Balora ezazu, Alkate Jauna, eta, behingoz, egin ezazu zerbait ona Aresoren alde: Dimiti ezazu!!

ARESOKO
HERRITARREN ASANBLADA



 **Josu GOIA** Hitz Egin plataformako kidea

Inkisidore berrien gainera, Egin eginen dugu



Euskal Herriko egunkari eta irrati bat itxi dizkigute. Arrazoa politikoa da, nahiz eta Espainiako Gobernuak epaile baten bitartez disimulatu nahi izan duen. Inkisizioak ere bazituen epaileak, eta baita lege berriak ere; aitzakia horrekin euskaldunak beuren su bedeinkatuetan erretzeko. Gezurkeri haiekin herri fededun bat engainatu zuten.

Sorginak ziren gure soro eta basoetan sortzen diren belarrak eta ondoak osasunerako erabiltzen zekiten bakarrak, eta “delitu” horrexegatik bidali zituzten sutara, kriminalak izanen balira bezala. Orain ere, Madrilgo Gobernutik, inkisidore berriek delitu berriak asmatzen dituzte euskal jendea kartzelaratzeko, eta delitu hori, Madrilen sortzen duten pentsamendu bakarria ez segitzea da.

“Egin”ek ez du segitzen Madrilgo pentsamendua, ez da belaukatzen “pentsaera bakar” horren aitzinean. Eta horrek min ematen die. Madrildik bertatik dominatzen dituzte komunikazioaren medio guztiak (prentsa, irrati eta telebistak). Eurek kontatzen diote mundu guztiari gure Historia, beuren ikuspuntutik, dudarik gabe, eta gainera Historia hori manipulatu eta okertu egiten dute.

Euskal Herriak bere Historiaren jabe izan behar du; guk egin eta guk kontatu.

“Egin” eta “Egin Irratia”k, Euskal Herriaren eskubide hori betetzen zuten, euskaldun batzuen (behinik-behin) ikuspuntutik kontatzen baitzuten gure Historia. Baina eskubide hori ezin zuten Madrildik onartu.

“Egin” eta “Egin Irratia” itxi dizkigute. Gure adierazpen askatasuna ebatsi digute. Euskaldun batzuk atxilotu dituzte inkisizio horren lege berri faszista horrekin. Noraino ailegatuko ote dira?

Gorputz batean gertatzen

Orain ere,

Madrilgo Gobernutik,

inkisidore berriek

delitu berriak asmatzen

dituzte euskal jendea

kartzelaratzeko,

eta delitu hori,

Madrilen sortzen duten

pentsamendu bakarria

ez segitzea da.

den bezal-bezalaxe, parte batek sufritzen duenean, gorputz osoak sufritzen du. Momentu honetan, Euskal Herriaren zati bat zauritu egin dute, eta horregatik Euskal Herri osoa ari da sufritzen. Bainan, bertze kasu batzuetan bezala, honetan ere euskaldunek izugarritzko imaginazioa dutela erakutsi dute. Orain imaginazio guzti hori martxan dago, eta seguru nago, nahiz eta Madrilen milaka inkisidore izan, zuen laguntzarekin, EGIN EGINEN DUGULA.

 **Juainas PAUL** Zubietza

98ko uda bullosoa?



Bertiz Partzuegoak programaturiko ekintza kulturalen egutegia apostu ausarta eta interesantea iduritzen zait, alde batetik. Eztabaidagarria du, beti bezala, erabakien aukera, eta bereziki, finantziario sistemak ekar ditzazkeen ondorioak. Azkenean, guztiari buruz solasteko eskas dut informazioa, baina hala eta guztiz ere:

Musika alorrean, aukeratu diren ekintzak eta tokiak egokiak iduritzen zaizkit, antolakuntza eta propagandarena ongi jorratzen baldin badira. Bertzela, sortuko duten zulo ikaragarria estaldu behar da eta orduan has daitezke justifikazioak. Sobera fidatu dira akaso, Donostiako musika hamabortzaldikoek Zugarramurdi gauzatu zuten esperientziak –Galiziako orkestrak kobazuloan jo zuelarik– horrek bere atzetik duen ospe eta izena ez baita bapatean lortzen. Berrriro aitortu behar dut ez dakidala deus ere, ez dudala ezagutzen Bertizkoek landu dituzten harreman eta propaganda erapen moduak, arabera etorriko baitira alor horretako emaitzak. Interesantea dirudi ere, programazioak erakusten duen jarrapen asmoa. I. Aizkolari Txapelketa, Mestizaje Kulturalaren I. Jardunaldiak, Bidasoako Filme Laburren I. Lehiaketa... azken honek dakar, beharbada, alde irristakorrena, filme labu-

rrak hagit minoritarioak izaten baitira, baina auskalo... 98ko uda bihur daiteke zer bait berriaren urtemuga. Pilatuegia! Hilabete horiek dira, preziki, toki guzietan aukeratzan dituztenak euren garatzeko, baita batetik bertzer mugitzeko eta kanpo giroa gozatzeko seguruenetarikoa ere. Horrek berak konpetitibitatea gogortzen du, eta nik behinik-behin probetako asmoa dut. Bai hemengoa, bai hurbilekoa.

Bestetik, alde ilunak ere ba-

Turismoak soilik du

indarra horrelakorik

sortarazteko?

Edota hau giro baten

hasmenta dugu?

Bertze urtarotetan

espero dezakegu

Bertiztik edo bertakoen

aldetik gisako

programaziorik?

Hala bedi.

ditu, aipaturiko itzaletatik aparte. Galdera batzuk etortzen zaizkit burura: turismoak soilik du indarra horrelakorik sortarazteko? Edota hau giro baten hasmenta dugu? Bertze urtarotetan espero dezakegu Bertiztik edo bertakoen aldetik gisako programaziorik? Hala bedi. Parte hartzen duten udal guztiek ez dute antzekorik erakusten, salbuespenak salbu. Pentsa daiteke agian, mirari bat suertatuz eremuko koordinazioa posible dela? Kulturak hizki haundiekin bere tokia lortu duela Herriko Etxetako aurrekontuetan? Berri ona litzateke.

Bidasoako Jaialdiak

e g i t a r a u a

1998

ABUZTUAK **ZUGARRAMURDI**

Lezeetan, 21:30etan

6

ORTZEGUNA

- **Xose Manuel Budiño**
- **Akilimarro**
- **Moliendo Café Trio**

Sarrerak Nafarroako
Aurrezki Kutxan
1.500 Pta.

ABUZTUAK **ELIZONDO**

Pilotalekuan, 21:30etan

13

ORTZEGUNA

- **Carlos Nuñez**
- **Quinteto Yerbabuena**

Sarrerak Nafarroako
Aurrezki Kutxan
2.000 Pta.

ABUZTUAK **LESAKA**

Kristo Enea, 21:30etan

21

ORTZIRALA

- **Afro Gaua**
- **Thiosanne Group**
- **Afrika Lisanga**
- **Djamboutu**

Sarrerak Nafarroako
Aurrezki Kutxan
1.500 Pta.

ABUZTUAK **ZUGARRAMURDI**

Lezeetan, 21:30etan

7

ORTZIRALA

- **Luar na Lubre**
- **Akilimarro**
- **Quinteto Yerbabuena**

Sarrerak Nafarroako
Aurrezki Kutxan
2.000 Pta.

ABUZTUAK **BERA**

Pilotalekuan, 21:30etan

19

ASTEAZKENA

- **El Mecánico del Swing**

Sarrerak
Zonaldeko Rural Kutxan
1.000 Pta.

ABUZTUAK **LESAKA**

Kristo Enea, 21:30etan

22

LARUNBATA

- **latinar Gaua**
- **Rompe Candela**
- **Palo Q'Sea**
- **Piel Canela**

Sarrerak Nafarroako
Aurrezki Kutxan
1.500 Pta.

ABUZTUAK **ELIZONDO**

Pilotalekuan, 21:30etan

8

LARUNBATA

- **Los Petersellers**

Sarrerak Nafarroako
Aurrezki Kutxan
1.000 Pta.

ABUZTUAK **ELIZONDO**

Pilotalekuan, 21:30etan

20

ORTZEGUNA

- **El Mecánico del Swing**

Sarrerak
Zonaldeko Rural Kutxan
1.000 Pta.

ABUZTUAK **DONEZTEBE**

21:30etan

29

LARUNBATA

- **Kepa Junkera**

Sarrerak Nafarroako
Aurrezki Kutxan
2.000 Pta.

ABUZTUAK **DONEZTEBE**

Bear Zana Pilotalekuan, 12:00etan

9

IGANDEA

- **Bertizko I. Aizkolari Txapelketa**
- NAFARRAK vs GIPUZKOARRAK
- D. Larretxea J.M. Olasagasti
M. Mindegia A. Arrospide
F. Nazabal J.M. Peñagarikano

Sarrerak Iruñeko Kutxan, 1.800 Pta.

Zabor Art

Erakusketa

BERA

1etik 16ra Kultur Etxean,
18:00etatik 20:30etara

DONEZTEBE

22tik 30era Zinemian,
18:00etatik 20:30etara

SARRERAK SALGAI

BERA

Euskalduna Jatetxea

DONEZTEBE

Café Ostatur
Titi Ostatur

ELIZONDO

Casino Ostatur
Sobrino Ostatur

LESAKA

Ekaitza Café
Zialdo Ostatur

ZUGARRAMURDI

Lezeetan

oharra

Nafarroako Aurrezki Kutxan
salgai diren sarrerak, Megaplan
txartelarekin erosita,
300 Ptako deskontua dute

informazioa

948 59 23 23

antolatzailea

laguntzaileak



BAZTAN
BALLEKO
UDALA



ZUGARRAMURDIKO
UDALA



DONEZTEBEKO
UDALA




LESAKAKO
UDALA



BERAKO
UDALA





Landa eremuetako garapena eta autoenplegua ikastaroa antolatatu du EHNEK

EHNE sindikatuak antolatutako 'Landa Eremuetako garapena eta autoenplegua' ikastaroa eginen da irailaren 16tik urriaren 7ra Iruñean. Ikastaro hau, 25 urtez behetiko eta 45 urtez goitiko langabetuei, hiru hilabetez goitiko kontratuak izan ez dituzten 25-29 urte arteko langabetuei eta langabezian urte bete baino gehiago daramaten 29-45 urte arteko pertsoneri zuzendua da.

Ikastaroa dohainik izanen da, MAPAK (Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministeritzak) eta Europar Fondo Sozialak, dirulaguntzen bidez zati handi bat ordainduko baitute. Dokumentazioa, hizlariak, kilometraia, bidaia, bazkariak... berriz, EHNEK ordainduko ditu. Ikastaroa goizeko 9,30etatik 2etara izanen da. 100 ordu iraunen dituen ikastaroan izena emateko 94825 4841 telefonora deitu behar da (Miriam).

Bertan landuko diren gaien artean, 'landa eremuetako soziologia eta nekazaritzako elkartegintza', 'Zer da landa eremuetako garapena?', 'Ekologia eta ingurugiroa', 'Nekazaritzan lan egiteko beste aukera batzuk' edo 'Emakume eta gazte baserriarrak landa eremuetako garapenean' daude, bertzeak bertze. Garapen ezberdinei buruzko esperientzia ezberdinak ezagutzeko bidaia ere eginen dira ikastaroaren barrenean.

Erri 'ttiki' batek hamar egunez itxi ditu Belateko tunelak

Belateko tunelean lau metro koadroko erria izan omen zen

TTIPI-TTAPA

Uztailaren 13ko goizaldean Belateko tunelean estalduran lau metro koadroko erria izan ondotik, hamar egunez trafikora itxiak egon dira Belate eta Almandozko tunelak. Hau da bederen, Nafarroako Gobernutik jakitera eman dutena. Duela zortzi hilabete zabalduko errepide moderno eta garestia honelako erri hutsalagatik hainbetez denboraz itxita egotea ulertzea ere zaila suer-

tatzen da. Hasieran, erria moldatu eta 72 ordutara zabaltzeko asmoa bazuten ere, Herrilan Departamenduak jakitera emandakoaren arabera, «*kalte-tutako estaldura moldatzeaz gain, tunel zati horretan eta inguruan saneamendua egitea egokia izanen litzatekela uste izan dute Nafarroako Gobernuo teknikariek. Horregatik egun batzuz luzatu da lanaren iraupena.*

Lan hauek iraun duten bitartean itxiak egon



dira Belate eta Almandozko tunelak eta biharramonean bertan, lehendabiziko istripua gertatu zen Marin zubiaren inguruan, Ingala-

terako kamioi bat frenorik gabe gelditu eta errepidetik atera zenean. Zorionez, garraio-lariak ez zuen min handirik hartu.

Dia %
Autozerbitzua
deskontua

Hamabostero ofertak

Zatoz eta

Eztegara, 6
© 948631403•BERA

Errekalde ostatua

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 948630259 - BERA

ZALAIN
Zalain Auzoa
© 948631106
BERA

Boda eta banketeak ematen dira

GRUPO ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 • BERA
© 948 630 763

Ortziral honetan emanen diote akabera Gazte Jokoei afari batekin

Ortzegunean, berriz, talde bakotzak bere parodia egingen du

ASIER GOGORZA

Aurtengo Gazte Jokoen akautzeko puntuan daude dagoeneko, eta bestetarako giroa berobero utzi dutela erran behar. Azken txanpan, honako ekitaldiak egingen dira: asteazkenean, kontzertua izanen da Zizkako terrazan, Zup taldearen eskutik. Hurrengo egunean, parodiak egingen dira Berako plazan. Talde bakotzak nahi duen gaia parodiatuko du, eta seguru ikusmin handia sortuko duela proba honek, izan ere, Gazta Jokoetako azkena eta erabakiorra izanen baita. Ortziralean, azkenik, amaiera ekitaldia eta afaria ospatuko

dituzte jokalariek, behar den bezala bukatzeko. Altzateko frontoian, arratseko 9,30etan.

Herriko hainbat gaztek hondarrek bi aste hauek zurrubilo batean bizitu dituzte, eta erokeriak segida izanen du gainera, herriko bestak gain-gainean ditugu eta. Hori, eta aurten lehendabiziko aldiz parte hartu dutenek heldu den urterako planak egingen hastea dira gauza garrantzitsuenak. Bigarren mailako kontuak dira nork irabazi duen, nor gelditu den azkena...

Edozein gisatan, partehartzaileez gain jende pila bat hurbildu da, probak ikustera, eta baita ekitaldi idekietara ere.



Ohatze lasterketaren irudia TTIPI-TTAPA TELEBISTA

flash

❖ **Migel Indurain** klasika abuztuaren 9an egingen da Beran. Atarrabiako txirringulariak proban parte hartu ondotik sariak banatuko ditu. Aurten 7. aldiz ospatuko da, eta urtero bezala bi ibilbide izanen dira, 174 kilometrokoa bata eta 106koa bertzea. Arratsean, berriz, afaria egingen dute partehartzaileek.

❖ **Futbito** Peñen arteko futbito txapelketa jokatu dute aurten ere. Erran behar da bertze urteretan baino ikusle guttiago bildu dela kiroldegira, zenbait partiduko Gazte Jokoei batera suertatu dira eta. Urtero bezala, Baietz peñakok ibili dira antolakuntzan. Kronika hau egiteko garaian oraindik ez genekien irabazle nor atera den.

❖ **Ibardingo ingurabidea** Uztailaren 16ko Udaltzarran Ibardingo Ingurabidearen proiektua onartu zen hasiera batez, Herrialde eta EAren botueri esker. HBko zinegotziak, hala ere, proiektuarekin ez daudela ados adierazi zuten, lur mugimendu handia suposatzen duelako, eta ez diolako Ibardingo arazoari soluziorik ematen.



Osasunako jokalariek Matzadan

Osasunako jokalariek 15 egunez ari dira aurrendenboraldia egiten gure zonaldean. Lo Etxalarko bentan egingen dute, eta entrenatzera Lesakako mendietara edo Berako futbol zelaira joaten dira. Hainbat herritar hurbildu da egunotan gorritxoan ariketak ikustera.

Argazkia: Asier

Kultur Etxearen bataioa

EAKo eta Herrialdeko zinegotzien 9 botoei esker, Berako Kultur Etxeari Julio Caro Baroja izena ematea onartu du Udalak. HB, berriz, mozio horren aurka aterra da, euren ustez nahikoa baita Berako Kultur Etxea izendapena.

Dena den, ofizialki Julio Caro Baroja izanen da hemendik aitzinera Kultur Etxearen izen berria, eta Barojaren senideek Julio Caroren erretrato bat eman dute bertan paratzeko.

ALZURI

- Sukalde tresneria eta opariak
- Landare eta loreak

Tel.: 948 630 370 • BERA

ROMANO PINTURAK

Barnealdeko dekorazioa, pintura, papera, moketa, kautxoa eta sintasola.

© 948630941 • 948631137 • BERA

KRISTALDEGI ZERBITZUA ETXERA

(zonalde osoan)

© 929 443 765 • BERA

Xirgil

deapaindegia

© 948631462 • Alzate 1 • BERA

➔ **LESAKA**

El Salvadorren liburutegia eraikitzeko diru-bilketa kanpaina burutzen ari da

Garbiñe eta Amaia Larralde ahizpek bultzatu dute ekimena

AITOR AROZENA

Sei hilabete pasatze-
ra abiatu eta dagoene-
ko hiru urte daramaz-
kite Amaia eta Garbiñe
Larralde ahizpak El
Salvadorren. Denbora
honetan, hainbat espe-
rientzia bizi izan dituz-
te eta bertakoei lagun-
tzeko hainbat proiektu-
tan murgildu dira.
Azkena, Ciudad Rome-
ron eraiki nahi duten li-
burutegia da. Sanfermi-
nak herrian pasatzera
buelatu den Amaiak
eman digu 2.300.000
pezetako aurrekontua
izanen duen proiektua-
ren berri. «Ciudad Ro-
meroko komunidadean
bizi diren gehienak 18
urteik beheikoak di-
ra, ikasteko aukera izan
dutenak, baina gaur
egun ez dute toki ego-
kirik ikasteko eta lana
egiteko. Liburuak ba-
dituzte, baina horiek an-
tolatzeko lekua falta
zaie». Amaia herrira
buelatu baino lehen ha-
sia zen diru-bilketa kan-
paina, liburutegia erai-
kitzeko eta liburuza-
inaren urtebeteko solda-
ta ordaintzeko asmoa-
rekin. Sanferminetan
ere elzteitsua paratu du-
te ikastolako ostatuan
eta CANen kontua ire-
kia dute. Dirulaguntza-
ren bat eman nahi due-
narentzat, hona hemen



Amaia Larralde El Salvadorreko Ciudad Romeron, bertako lagun batzuekin. Sanferminak herrian pasatu ondotik, berehala itzuliko da Ertamerikako herrialde honetara lanera.

zenbakia: 2054000766
911916 1575. Amaiak
onartzen duenez, «ez da
arazo guzien soluzioa
izanen, baina...».

**HIRU URTE ETXETIK
URRUN**

Larralde ahizpak eta
Mertxe Rekondo sei hi-
labeterako joan ziren El
Salvadorrerako Askape-
naren eskutik, lagun-
tzaile gisara. Mertxe
Chalatenango haur-
tzaindegian aritu zen la-
nean. Amaia eta Gar-
biñe Ciudad Romerora
ailegatu ziren eta gaz-

teendako proiektu ba-
tean aritu ziren. «Gaz-
tetxea egin, saski-
baloi zelai bat molda-
tu, antolaketa...» dio
Amaiak. Bi ahizpak
ederki laketu ziren El
Salvadorren eta proiektu
hura akautu zenean,
lan berrietan hasi ziren.
«Hemen ikasitakoare-
kin lotutako lanetan ha-
si ginen, ni musika ira-
kasle bezala eta
Garbiñe margoketa era-
kusten, eskulanak egi-
ten...». Hau ere akautu
zen ordea, eta komuni-
dadetik San Salvador

hirira joan ziren biek.
Garbiñek erakunde ez-
berdinendako posterrak,
triptikoak... prestatzen
ditu orain eta Amaia ne-
kazariendako banketxe
komunal gisako batean
ari da lanean. «Artoari
lotuta daude han eta
maileguak lortzea ha-
gitz zaila dute. Hori
errazten saiatzen gara».
Izan ere, «guziek jate-
ko adina badute ere ani-
tzek jateko bertzerik ez»
omen dute. «Hemen
erraxago irabazten du-
gunez, erraxago gasta-
tzen dugu» dio Amaiak.

▼ **flash**

❖ **Lesakako irratiz-
lizentzia**

Xorroxin Irratiari
eman dio Nafarroa-
ko Gobernuak. FM
100.9an hartuko da
irradi seinalea.

❖ **Egin egunkaria
ixtearen aurka**

manifestazio zarata-
tsua egin zen uztai-
laren 17an. 50 lagu-
nek parte hartu zu-
ten ekitadian. Biha-
ramonean auto kara-
bana joan zen Do-
nostiako manifesta-
zio haundira.

❖ **Xake
txapelketa**

Lesakako Herria
Nazioarteko bosga-
rren Xake Irekia jo-
katuko da irailaren
5ean udal pilotale-
kuan. Beti Gazte el-
karteak antolatutako
lehiaketa honetan
hainbat herrialde-
tako ehundik goiti xa-
kelari biltzen dira.

❖ **Tasio Erkizia
aitaren hiletan**

Tasio Erkizia gar-
tzeletik atera zuten
bere aitaren hiletara
eramateko. Senideak
eta lagunak agurtu
eta besarkatzeko au-
kera izan bazuen ere,
herrian nabarmen
gelditu zen guardia-
zibilaren presentzia.

ANA
janaridenda
Bittiria, 41 • © 948637944
LESAKA

Lurrindeuda
Marian
mendiberrari
Estetika
Behoko Plaza 8 • © 948637791 • LESAKA

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

XATURBETXEA
ZAZPI
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

**BITTIRIA
HARATEGIA**
© 948 627555
Bittiria, 43 • LESAKA

ETXALAR

Osasuna futbol taldea gure herrian dago egun hauetan

Uztailaren akabera arte luzatuko dute egonaldia

PELLO APEZETXEA

Urtero sasoi honetan burutzen duten konzentrazioa eta prestaketa, toki ezberdinetan eginketu dutena, aurten Etxalarren eta inguruko dermioetan egiten ari dira Osasunako jokalariek. Beren egoitza edo bizilekutzat Etxalarko Benta hartu dute.

Auto zahar erakusketa

Andremarietan, abuztuaren 16an xeheki, aspaldiko autoak ikusteko aukera izanen da, herriko plazan. Escuderia Oizek presatutako erakusketa horrek, hilaren 13tik 16ra-ko itzulia egingen du, Euskal Herriko hainbat tokitan barrena. Azken egun horretan Etxalarra ailegatu, eta hamabietarako akautuko da. Horrela, Bestetako

programako ekitaldiak betetzeko plaza libre egon dadin.

Ehiza postuen subasta prest

Ehizaldia gainean dugu. Abuztuarekin eskopetak lanean hasten dira, eta ehizalekuak eta beraiek banatzeko moduak prestatzen joan behar. Dagoeneko, Usategietako ehiza postuak enkantean sartzeko kondizioak onartu ditu Udaltzabazak. Aitzineko urtearekin konparatuz, ez da aldaera haundirik. Oinarrizko prezioak %5 haunditzea. Bertzerik ez.

Larraburua elkarteak Ordiziarako bidaia antolatu du

Abuztuaren hondar aldera egin du, bertze burtetan, Larraburua elkarteak ateraldia.



Urrezko Eztaiak

lizaldegaraiko Bernardo Sanzberrok eta Teodora Altzuguren bere ezkontzaren berrogeitamargarren urtemuga bete dute aurten, otsailaren 7an xeheki. Hori dela eta, Arkupeak elkarteak omenaldia eskeini die, bertze hainbatekeri bezala, Donezteben ekainaren 26an antolatutako bestan. Bazkaria eta oroitzapen iduri polita jaso zuten bertan.

Argazkia: Pello



Udalekuak

Udalekuak direla eta, uztaileko goizetako orduak ongi beteak izan dituzte haur gehienek. Ibilaldiak edo egonaldiak, eguraldiaren arabera, baina beti denbora ongi pasatzeko hainbat modu izan dute.

Aurten, ordea, buruilarren lehen egunetan izanen da bidaia, Ordiziara, azoka edo feria egun berezia ikustera. Herriko Bestetan, urtero bezala,

bazkaria izanen da.

Usategietako 1. Igoera

Auto lasterketa egingen da, abuztuaren

23an, Usategietako Igoera izenarekin. Eguzki Sportek antolatua, 6. kilometrotik 11.era inoko ibilbidea beteko du.

Bias GOIZUETA SARRATEA
berriki hila



Gogorra da onartzea gehiago ez zaitugula ikusiko baina bizi garen artean ez zaitugu ahaztuko

Familiaren partetik
Lesaka, 1998-VI-25

HERRIKO OSTATUA
Jatetxea
635290 **ETXALAR**

«**USOA**»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 948635214
ETXALAR

KOXKILA OSTATUA
Zarandia, 4 - **LESAKA**

Txema Etxarte
Zolen akutzilatze eta bernizatze profesionala
948 637439 • 31700 LESAKA

IGANTZI

Juanjo Txoperena alkatea hil egin da

Hiru legealditan hainbat lorpen garrantzitsu eginak zituen

OSKAR TXOPERENA

Inoiz idatzi nahiko ez genukeen kronika da oraingo hau, baina, zoritxarrez, heriotzak, bertze behin ere, inor ez due-la errespetatzen erakutsi digu.

Joan den astean, uztailearen 20an, hil zen Juanjo Txoperena Matxikote, herriko alkatea. Hiru hilabete luze eduki gaitu etsipen eta itxaropenaren artean, borroka galdu duela jakin dugun arte.

1946. urteko hilbeltzaren 24an jaio zen Juanjo, Zambunborda baserrian, eta bera zen hamabi senideko familian zaharrena. Bere ikasketak burutu ondotik zonaldeko zenbait lantokitan aritu zen lanean, kanpora ateratzea erabaki zuen arte. Orain dela hamabortz bat urte itzuli zen Igantzira eta georotzik ez da bertatik mugitu.

Hamaika urte zeramatzan alkatezan, 1987an Herri Taldearen eskutik bozketak irabazi zituen ezkerotzik. Inguruan izan duen jendea aldatzen jo-

an da poliki-poliki, baina berak hortxe segitu du alkateztan, ia-ia hiru legealdi bete arte. Piszinak, Zahar-etxea, herriko argiteria, baserrietako bideak, arau subsidiarioak... dira bere gidaritzapean lortutako gauzarik garrantzitsuenak, baina, agian, 1987an komunalekin zegoen korapilo ikaragarria askatzea izan zen Juanjoren lorpenik haundiena, izugarriko tentsioan zegoen herria baketzea lortu baitzuen.

Kirol alorrean ere aipamen berezia egin beharko genuke, pilota utzi zuenetik urte batzuk joan badira ere, jokatzeko eza gutu genuenok begibistan baititugu oraindik bere jokaldi ederrak. Aurrelari artista izan zen Juanjo eta bere anaia Miguel Angel, Luis M^a Retegi eta Javier Etxeberriarekin agian Igantzik izan duen pilotari talderik hobereña osatu zuten. Despedidako mezan izandako jendetza ikaragarria Juanjok zuen lagun pilaren adierazgarri bertzerik ez zen izan.



Juanjo Txoperena azken hameka urtetan alkate izateaz gain, pilotari artista izan zen gazte denboran.

Argazkia: Oskar Txoperena

Juan Jose TXOPERENA MATXIKOTE
Uztailearen 20an zendua



«Hire bidetik segituko diagu»

IGANTZIKO UDALA

BERBIZTUN
Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekaniko
Torno, fresadorak, errektifikadorak

Igantzikoko Bentak • ☎ 948627572 • Faxa: 948637313

EKAITZA kafetegia
GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA
Lagunekin elkartzeko toki egokia

Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 **LESAKA**

EROSLE
LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hobereña

Frexkuena
zugandik hurbilago

Bittiria, 67 - ☎ 948637264

IKUSMENAREN BERRESKURATZEA

- Miopia
- Bista alfertua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-kataratak

GIHARRE ARAZOAK

- Bixkortzea
- Artrita, erreuma
- Artrrosia, Lunbalgia
- Bihurdurak, etab...

KONTSULTA ORDUTEGIA
Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldeaz 2-7etara. Ordua eskatu

MAGNETISTA NATUROPATA

San Marcial, 7-4 IRUN

KATTU

ostatu - jatetxea

Plater konbinatuak eta menuak

☎ 948627573 • **LESAKA**

ARANTZA

Bideo-emanaldia izanen da ortziral honetan udal pilotalekuan

Bertziko Turismo Partzuergoak antolatu du

ELIXABET ETA GARBIÑE

Bertz Partzuergo Turistikoak Udalarari egin zion eskaeraren arabera uztailaren 29an, ortziral honetan, bideo emanaldia eskainiko dute herriko pilotalekuan. Herriz herri ematen ari diren bideo hau ikusteko deia luzatu die Udalak herritarrei.

Bertzalde, Udalak 10.000 pezetako ditulaguntza onartu du Bertz Partzuergo Turistikoarentzat ekitaldi hau dela eta.

'Egin' egunkaria eta irrtiaren aldeko herri plataforma sortu da

Egin egunkaria eta irratia itxi dutela eta, herrian hainbat batzar eta kontzentrazio egin dira egun hauetan. Duela bi aste, asteazkena, ortzeguna eta ortziralean, ba-



Barnetegia jendez gainezka dago

Nahiz eta dagoeneko batzuk joan diren egun batzuk hemen pasa ondoren, abudo etorri da bertze irakasle eta ikasle taldea. Herritarrekin harremanak sendotzeko afari bat egin zuten duela egun batzuk eta Senberkobordan ere bazkaria egin zuten joan den ortziralean, saiheski jatea. Eguraldia ezin hobe ongi aprobetxatu dute aste hauetan.

tzarra egin ondoren, manifestazioak egin ziren. Larunbatean, berriz,

barnetegiko jendearekin batera autobusa antolatu zen Donostiako

manifestazio haundira joateko. Hurrengo egunetan ere batzar infor-

matiboak egiten segitu zuten eta uztailaren 23an, bi orduko kontzentrazioa egin zen herrian, sindikatu ezberdinek eta *egineko* langileek proposatutako lan geldialdiarekin bat egin ez.

Gazte Asanbladak antolatutako kontzertua abuztuaren 15ean izanen da

Gazte Asanblada azkeneko prestakuntzak egiten ari da bestetarako. Prestakuntza horien artean garrantzitsuenak, abuztuaren 15ean, larunbatean, egingen den kontzertua prestatzea da. Aurtengo kontzertuak *Arantza Rock-98* izena izanen du eta bertan, *Hechos contra el Decoro, Latzen, Etsaiak* eta *Narco* taldeek joko dute. Denak gonbidatuak zaudete.

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxoz garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz. Termita eta Polillen kontrako tratamendua

BERA

948630155

BERA

PINTURAS DEL BIDAISOA

Barne eta kanpoaldeak
Goteleak - Iztukadurak
Lakatuak - Papereztatzeak

Lucas Sansiñena 929-416768
Jose Luis Macayo 970-655785

Aurrekontuak
Loturarik gabe

SAROBE
okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

Toldos BAZTAN, S.L.

TOLDOEN SALMENTA, ALOKAIRUA ETA KONPONKETA

- Kamioi eta industri-furgoneten errotulazioa (Errotulazio zerbitzua)
- Etxerako toldoak, eguzkitik babesteko (manualak edo elektrikoak)
- Toldo korrederoak
- Bolketeendako sareak
- Kamioiendako klase guzietako toldoak
- Pizina estaltzeko sareak
- Trinkajetarako Slingak

Alkaiaga industrialdea, Baldrun 8
LESKA (Zalain industrialdearen ondoan)

Tel. 948. 63 10 03
Mug.: 929 01 59 23

Elizatz

ERLOJUTEGI
BITXITEGIA

Nafarrentzat prezio bereziak

Landetxe Enparantza © 943.492698 **OIARTZUN**

MALERREKA

Emakumeendako lau ikastaro antolatu ditu Ezpelura taldeak

Abuztuaren 15a bitartean zabalik dago izena emateko epea

TTIPI-TTAPA

Uztailaren 1etik abuztuaren 15era zabalik dago Ezpelura emakumeen elkarteak antolatutako ikastaroetan izena emateko epea. Zehazki lau ikastaro izanen dira, irailetik aitzinera emanen direnak: Altzarien zaharbertzeta, 60 orduz; jostea, 60 orduz; etxeko txapuzak, 12 orduz; eta autodefentsa, 20 orduz.

Izena emateko Malerrekako Mankomunitatera joan behar da eta 948 451746 telefonora deitu eta Begoña, gizarte langilearekin, harremanetan jarri. Apuntatzerakoan 2.000 pezeta utzi beharko dira seinale gisa eta ikastaroa hasterakoan ordainduko da falta dena. Ezpelura elkarteko bazkideentzat prezio bereziak izanen dira.



Elgorriagako udaletxeko teilatua moldatzeko laguntza

Elgorriagako udaletxeko teilatua moldatzeko lanak Hirurteko Planaren barruan sartu ditu Nafarroako Gobernuak. Lanaren aurrekontua 2.287.341 pezetakoa da eta Iruñetik egingen den inbertsioa, berriz, 1.113.878 pezetakoa.

Artxibokoa

Honela, altzariak zaharbertzetzeko eta josteko ikastaroen prezioa 10.000 pezetakoa izanen da (7.000 pezeta

bazkideentzat). Etxeko txapuzak ikastaroan aritzeko 3.000 pezeta ordaindu beharko da (2.000 bazkideek) eta

autodefentsa ikastaroan parte hartzeko 5.000 pezeta ordaindu behar dira (3.500 pezeta bazkideentzat).


▼ **flash**

❖ **Legasako ehizbarrutiaren probetxurako enkantea**

Abuztuaren 8an, goizeko 10,30etatik aitzinera egingen da Legasako Kontzejuko Etxean Ilerriko uso ehizbarrutiaren aprobetxamendurako enkantea. Bederatzi ehizi posturen bortz urterako aprobetxamendua sartuko da enkantean eta haserako prezioa 500.000 pezetakoa da. Lehendabiziko enkantea hutsean geratuko balitz, abuztuaren 22an egingen litzateke bigarrena, %10eko beherapenarekin eta hau ere hutsean geldituz gero, hirugarrena irailaren 5ean egingen zen, %20ko beherapenarekin.

❖ **Bidasoako Filme Laburren Zinemaldia**

iragartzeko kartel lehiaketa Ignacio Zaldua elizondarrak irabazi du 'Ensayo' izeneko lanarekin. Lehiaketara 9 kartel aurkeztu ziren, 7 egile ezberdinenak. Irabazleak, kartela argitaratua ikusteaz gain, 50.000 pezeta-koko saria jasoko du.



Parrokia 11
Tfnoa: 45 01 12
DONEZTEBE



APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

FUNERARIA ZERBITZUAK

DONEZTEBEn



MALDAERREKA, S.L.


24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 948637404 • LESAKA
Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

Abuztuaren 5. maila edo EGA ateratzeko ikastaroa

Urtero egin ohi duen bezala, aurten ere Malerrekako IKA Euskaltegiak 5. maila edo EGA ateratzeko ikastaroa antolatu du abuzturako. Klaseak abuztuaren 10ean hasiko dira eta irailaren 10era arte iraunen dute, astean borts egunez emanen dira, astelehenetik ortzirala bitarte eta egunean lau orduz. Goizez edo arratsaldean izanen dore, ikasleen baitan egonen da, gehiengoaren nahia errespetatuko baita. Honetaz informazio gehiago edo izena eman nahi duenak, nahikoa du 948 451555 telefonora deitzea edo Euskaltegira bertara joatea. Izena emateko epea heldu den abuztuaren 7an akituko da.

AHOZKO AZTERKETAREN PRESTAKETA

Jende franko matrikulatu ohi da inguru honetatik ekainean titulua ateratzeko asmoz, baina ez dute denek gaintitza lortzen. Dena den, matrikula horrek balioko dio irailan eginen den azterketarako, eta aukera hori aprobetxatzeko badu abuztuaren prestaketa aukera berria. Bertze batzuk, ordea, idatzizko azterketa gaintitzen dute ekainean eta ahozkoan huts egin. Hauek ere badute aukera berri bat irailan ahozkoa barrik egiteko eta horiei zuzendutako prestaketa berezia eskainiko zaie. Beti ere, azterketa guziaz egin behar duten baino ordu guttiago emanen. Ahozko prestaketa honetarako ere, arestian aipatutako telefonora deitzea aski da.



Ortzirala, uztailak 31

8etan altxaferoak beste hasiera emanez. Ondoren, kalejirak herriko trikitilariekin. **9etan** Baztan-zopak Herriko Ostatueta. **12etan** dantzaldia MODESTO akordiolariarekin.

Larunbata, abuztuak 1

10etan kalejira herriko trikitilariarekin. **Eguerdiko 12etan** eta **atsaldeko**

5etan Jolas Parkea. **7,30etan** aizkora apostua: Larretxea eta Mindegia, Olasagasti eta Nazabalen aurka. **Arratsaldean eta gauez** dantzaldia GAUBELA taldearekin.

Igandea, abuztuak 2

10etan Argi-soinuak Iturengo txistulariekin. **12etan** Meza Nagusia. **1etan** Baztango danzariak.

Ondotik, hamaiketakoak, Herriko Ostatueta. **7etan** pilotapartiduak. **Arratsaldean eta gauez** dantzaldia GAUBELA taldearekin.

Astelehena, abuztuak 3

10etan kalejira. **12etan** plater tiraketa. **5etan** mus txapelketa herriko ostatueta. **7etan** herriko trikitilarien emanaldia. **Arratsaldean eta gauez** dantzaldia GAUBELA taldearekin.

BELA taldearekin.

Asteartea, abuztuak 4

10etan kalejirak Iturengo txistulariekin. **1etan** aizkora apostua herriko aizkolarien artean. **2etan** herri bazkaria Unai Iturriaga eta Jon Sarasua bertsolariarekin. **Arratsaldean eta gauez** dantzaldia MODESTO akordiolariarekin.

GAZTANDEGIA

LIZUN
 Etxeko Ardi Gazta
 Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

LANCHAS

 • Parketak - Tarimak
 • Kutxillatzea eta bernizatzeak
 • Estaldura orokorrak
 Bera © 948630735 • IRUN © 943622305

ETXANDI TXOKO
jatetxea
 Bazkari, afari eta gosariak
ITUREN
 © 948 450 491

AKORDEOIAREN GOI-MAILAKO AKADEMIA

MENGHINI AKORDEOIAK Angel Manuel Belio
 AKORDEOIAK SALDU ETA ALKILATZEN DITUGU
 Deskontuak akordeoiak erosterakoan
DOMINENEA Etxea
San Andres Karrika, 40 NARBARTE
 © 943 - 61 50 55

BEINTZAKO OSTATUA

 Ongi pasa herriko bestak
 © 948 450 014
 BEINTZA-LABAIEN

Larunbata, abuztuak 8

12etan plazan kontzertua NAHITANAHEIZ eta AIS-TRIKA taldeekin. Herriko ostatuek antolatua.

Astelehena, abuztuak 10

8etan txupinazoa eta ondotik, KORKOR txaranga herrian barna. **9,30etan** baztan-zopak. **12etan** musika JATOR taldearekin.

Asteleartea, abuztuak 11

10etan diana trikitalarien eskutik. **11etan** Meza Nagusia Tiburtzio Deunaren ohorez. **12,30etan** Donostiako KRESALA dantzari taldearen aktuazioa pilotalekuan. **6etan** herriko pilota txapelketaren finala. **7etan** trikitixa jaialdia talde desberdinen eskutik. **10,30etan** su artifizialak, Astondoa pirotekniaren eskutik. **Arratsalde eta gauz** dantzaldia JATOR taldearekin. Egun osoan KORKOR txaranga giro-tuko du herria. Goizean eta arratsaldean Gurpil Trena ibiliko da karriketean.

Asteazkena, abuztuak 12

10etan dianak. **10,30etan** kadete mailako txirindularien karrera. Ibilaldia: Sunbilla-Aldaera-Sunbilla-Aldaera-Larrakaitz-Sunbilla-Aldaera-Sunbilla-Ziga-Sunbilla (helmuga). **6,30etan** profesionalen arteko pilota partiduak. **Arratsalde eta gauz** GAUBELA taldearekin. Egun osoan gurpil trena ibiliko da herrian barna.

Osteguna, abuztuak 13

10etan dianak. **10,30etan**



Herri kirol taldeak hainbat txapel herriratu zituen 1990. hamarkada hasieran. 1990. urtean sokatiran eta proba konbinatuan parte hartu zutenak ageri dira argazkian. Goitian, ezker-eskuin: Mario Mitxelena, Patxi Mitxelena, Jose Mitxelena, Miguel Mari Mitxelena, Antonio Espelosin (entrenatzailea), Francisco Altzugarai, Juan Luis Altzugarai, Meliton Irazoki eta Tiburcio Espelosin. Totorika: Jesus Javier Agirre, Florentino Gelbenzu, Esteban Agesta, Felix Espelosin, Felix Etxeberria, Santi Arretxea, Santiago Inda eta Juan Indakoetxea.

Herri Krosa. **12etan** Goitiberak (Garaikobordatik Fonda Ostaturaino). **4,30etan** Olegi parajea, herriko plater tiraketa. **5etan** igerilekuan, igeriketa frogak. **Arratsalde eta gauz** dantzaldia GAUBELA taldearekin. Gurpil trena ibiliko da herrian. **Ortzirala, abuztuak 14** **10etan** dianak. Ondoren, mus txapelketa. **11tan** haur-errentzako jokoak: Gaztelu

puzgarriak, karts, zezen mekanikoa... **5etan** tarta lehiaketa Ulibeltzak elkar-teen. **8etan** haur dantza lehiaketa plazan. **Arratsalde eta gauz** dantzaldia GAUBELA taldearekin. **10etan** herri afaria pilotalekuan. **2ak** aldera Dantza txapelketa. Sariak banatuko dira. KORKOR txaranga giro-tuko du herria. Goizaldera, 'Pobre de mi' eta besten akabaila.

SANZBERRO eraikuntzak

*Etxebizitzan moldatzea
Igeltsero lanak orokorrean*

Donibane karrika
Tfnoa: 948 450 095
SUNBILLA

ONGI PASA HERRIKO BESTAK

INGENIERIA

Ongi pasa bestetan

Gindal Ibiltokia, 3 - 1ºD
Telefona (948) 450844
31791 SUNBILLA

GAZMENDI eraikuntzak

- Eraikuntzak orokorrean: publikoak, partikularrak
- Etxe berritzeak
- Nabe industrialak
- Sareamendua

San Juan karrika, Gure Borda © 948 45 16 70 • **SUNBILLA**

IRVRIBIETA

**ostatu
jatetxea**

Ongi pasa bestetan!

Irun-Iruña bidea, 61'5 kma
© 948 450 399
SUNBILLA



MALERREKAKO EUSKARA
ZERBITZUAREN ARGITALPENEA
Nafarroako Gobernuaren laguntzaz

Euskara
merkataritza
munduan

MALERREKAKO EUSKARA BATZORDEAK ESKERTZA PUBLIKOA

Merkatal munduan euskara sustatzeko egitasmoaren balorazio orokorra egitean kontutan izanzen dugu, batetik, partehartzaileen jarrera zein iritzia—Karlos Ostizen eskutik datorkiguna—eta bertzetik, egitasmoa bulkatzeko bisitari lanetan aritu den bertako Pili Insaustiren balorazioa. Mankomunitateko Euskara

Zerbitzuko txosteneko ebaluazioa orokorra hagitz positiboa izan da, alderdi kuantitatiboaz gain (ia %80ak sinatu baitu establezimenduan euskara sustatzeko konpromezu hitzarmena), alderdi kualitatiboa ere. Merkatarri gehienek egitasmoa gogoan dute (helburuak, ezaugarriak, bisitariak, e.a.) eta bisitariari harre-
ra ona egiten zaio; koxka euskararen erabilera idatzia sustatzeko planteamenduan dago orohar. Herrietan jarrera hobea badute ere, merkatalgune nagusi

den Donezteben erabilera idatzia bermatzea zaila da. Hori horrela bada ere, Malerrekan itzulpen anitz eskatzen da eta merkatariek itzulpen zerbitzu hau ezaguna dute. Lehenesten duten hizkuntza irizpidea elebitasuna da, euskarari lehentasuna ematen dion elebitasuna. Zertaz? saltzailearen helburua saltzea delako eta bi hiztun motakoekin—erdaldun eta euskaldunarekin—komunikatzea dagokio. Honen ondorioz, euskara zerbitzu hizkuntza da baina, establezimendu

barruko funtzionamendua (idazkiak, inprimakiak,...) orohar gaur egun neurri handi batean erdaraz izaten segitzen du. Aitzinpausua emateko bide honetatik ibili beharra dago, harremanak lantzen jarraitu Mankomunitateko Euskara Zerbitzuarekin erabateko inertzia lortu arte. Zerbitzua DOAN da, urte osokoa eta herritarrei hizkuntza aholkularitza emateko, laguntzeko sortutako zerbitzua da beraz; probestu aukera hau.

1997ko merkatariei bisitaldia Pili Insausti bisitariaren balorazioa

1994. urtean, Malerreka Euskara Zerbitzuak antolatuta eta SIADECO enpresa espezializatuaren laguntzarekin, merkataritzan euskara indartzeko kanpaina hasi zen. Geroztik, jarraipena eginez, urtero egin da zonaldeko denda, taberna, jatetxe... establezimendu guztitara bixita, bere euskararekiko egoeraren eboluzioa aztertzeko, merkatariei sortzen zaizkien kezka eta beharrak jasotzeko eta Malerreka Euskara Zerbitzuak urtean zehar zer eskeintzen dien azaltzeko. 1997ko udazkenean, urte honetako bixitari izatea onartu nuenen, nire eguneroko bizi eta erosketetatik ezagutzen nituen establezimenduak eta bertako euskararen egoera, edozein bezero bezala: sunbildarra izanik, nere herrikoak hobekien; zenbait erosketa egitera Doneztebera joaten garenez, hemengo batzuren, eta inguruko herritako ostatu, jatetxe edo denda bakar batzuren ere bai. Bixitatu beharrekoak 150 inguru ziren: nahiz eta establezimendu aunitz zeudela jakin, ez nuen hainbeste ziren uste, zerrenda ikusi arte.

Hauek ziren **bixitan egin beharreko lanak** eta ikus, entzun eta solastutakoaren ondotik egiten dudana **balorazioa**:

1.- Establezimenduen fitxa gaurkotu:

Establezimendu bakoitzaren fitxa bat nuen eta, bertan, bere ezaugarriak agertzen ziren: ze denda mota zen, zenbatek egiten zuen lan, langileen euskara ezaguera, zer egiten zuten euskaraz (bezeroekin harremanak, idatziak, inprimakiak, eskeintzak, kontabilitatea, menua...). Egin beharrekoa, ezaugarri hauetan aldaketarik bazen, zertan eta nolakoa jasotzea zen. Orokorrean, aldaketa haundirik gabe, aurrerantz egin behar da, aurrerako urtetan euskaratutako inprimakiak, salgaien izenak, menuak... erabiltzen direla, bezeroak ikusteko eta erabiltzeko moduan daudela.

2.- Euskara Zerbitzuak merkatariei zuzendutako eskeintza azaldu. Eskeintza hau, hirutan sailkatu daiteke:

a) **Euskara teknikaria**: urtean zehar, euskararekiko edozein zailtasun izanez gero, itzulpen edo kartel-inprimakirik behar izanez gero, hizkuntzari lotuta dagoen edozein gauzetan laguntza behar izanez gero, bera arduratuko du. Edozeinek, urte guztian erabili dezake zerbitzu hau. Teknikariak, Esther du izena, Donezteben, Mankomunitateko bulegoan egoten da, goizeko 8etatik 3ak arte. Tfnoa: 948451746.

Urtero gogorazten zaie zerbitzu hau. Erabiltzen dutenak gero eta gehiago dira: merkealdietan, edo beren dendan eskeintza bereziak jarri behar dituztenean, edo momentu konkretu batean zerbait berezia egin nahi dutenean (Eguberri, ihauteritan...) telefonoz edo bertara hurbilduz, itzulpenak edo inprimakiak eskatzen dituzte, segidun edo egun pare batez prest izango dituztela jakinez.

b) **Euskara klaseak**: nahiz eta merkatarientzako 40 orduko ikastaro berezia, nahiz Doneztebe Euskaltegian, urtean zehar antolatutako edozein euskara ikasta-

rorako matrikula ordaintzeko errezasuna eta dirulaguntza ematen ditu. Ordutegia, ikasleen artean erabakitzeko aukera dute. Zerbitzu honen garrantzia, euskararen erabilpena normalizatzeko, haundia da. Zonaldeko herri txikitik, merkatarri gehienek badakite euskaraz solasten eta, bere dendetan, posible da harremanak euskaraz izatea. Dena hobetu daiteke eta alfabetatzea edo daukatena hobetzea eskeintzen zaie dakitenei. Eta, ez dakitenei?, edo erdizka dakitelako, solastera ausartzen ez direnei? Hauentzat ezinbestekoa da, esfortzu bat eginez (izugarria batzutan), klasetara joatea, arrazoi asko eta desberdinetatik: hizkuntzari beldurra galtzeko, bezeroekin harreman minimo bat euskaraz izatea posible dela ohartzeko..., azkenean, bezeroaren hizkuntzan komunikatu ahal izateko. Honek, eskertuko du bere hizkuntza baloratua izatea, harreman hau merkatarriaren kalitate ezaugarri bat bihurtuz eta, horrela izanik, honen poza eta salmentarako aukera areagotuz.

1997ko merkatariei bisitaldia

Balorazioa: euskaraz ez dakiten edo zailtasunez solasten diren merkatariek, orokorrean, ikastea gustatuko litzaiekela agertzen dute. Oztipoen artean, denbora faltarena da nagusi: ordutegi luzea dutenez, bazkalondorengo atsedendia aukeratzen dute gehienek klaseetara joateko. Beste batzurentzat, adin batean hizkuntza ikasten hasia... ez dute bere burua gai ikusten.

Azpimarratzekoa da, aurreko urtean joandakoak, denak, errepikatzen prest zeudela. Haiengandik jasotako inpresioa hauxe da: gustora aritu zirela, 40 orduko ikastaroa motz geratzen dela, ongi pasatuz gauza asko ikasten dela, lotsa galduz, bakoitzak dakien mailan, bezeroarekin solastea auzartzen dela, lagunarte polita sortu dela... merezi duela.

Beraz, pozgarria eta baikorra da ikastaroen zerbitzua erabili dutenen arteko iritzia. Guk ere, bezerook, baloratu behar genuke egiten ari diren lana eta, beraien establezimendura joatean, euskaraz egin eta, zailtasuna badute, lagundu, nola esaten den adieraziz. Benetan eskertzen dute.


c) Inprimakien katalogoa erakutsi eta, zerbait behar badute, pres-tatu eta eman. Merkatariek, be-

zeroari zerbaiten berri eman nahi dionean, kartel edo inprimaki bat jartzen du horman, barran, produktuaren gainean... Euskaraz jartzeko, Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak, inprimaki mota desberdinak eskeintzen ditu eta, nahi izanez gero, berak euskaratu, plastifikatu eta ematen ditu. Inprimaki hauek, euskara hutsean edo elebitan, euskarari lehentasuna emanez, egiten ahal dira. Zerbitzu hau ere, dohainik da eta urte osoan zehar ematen da, lehen aipatutako teknikariaren bidez.

Balorazioa: establezimendu askotan eskatu zituzten inprimaki desberdinak: ordutegia, menua,



Pili Insausti bisitaria



ze pintxo mota zeuden, zer salgai berezi zeuden... zerbitzu hau baloratzen da eta erabiltzen da. **3.- «Merkataritzan euskaraz» liburu berria aurkeztu eta, nahi zutenentzat, prezio be-**

rezian eskatu.

Bertan, besteak beste, merkatariek erabili ditzaketen agiriak (txekek, fakturak, gutunak...) euskaraz nola egin daitezken, edo kopuruak, kantitateak nola erabiltzen diren (zenbakiak, pisua,

edukiera...) agertzen dira. Euskara ikastaroan ere liburu hau erabiltzen da.

Balorazioa: eskatu zuten gehienak euskaldunak ziren, nahiz solasean jakin, agiriren bat edo betetzeko, lagungarri izango zutela ikusten zutenak.

Hauxe izan zen, bada, puntuz-puntu, egindako lana eta merkatarien erantzuna.

Orokorrean, gelditu zaidan inpresioa baikorra da. Lan asko dago egiteko, baina badago mugimendua: bada merkataritza talde bat gogoz eta hagitx motibatua, bezeroekin bertako hizkuntzan aritzeko. Horretarako, bere lanorduz kanpo, ikasteko prest dago eta, hori, txalogarria da. Bezero euskaldunok, euskaraz egiteko eskubidea erabiliz eskertzen diegu lan hori.

Bixitari izateak, zonaldeko dendan, ostatu, jatetxe... ezagutzeko aukera eman dit eta, erran behar, askotan ikusten direla ordutegiak, oharrak... euskaraz. Bestalde, merkatariek, beste edozeinek bezala, ohituraz jokatu du eta, duela gutxi artekoa, erdara hutsean jartzea zen. Hasia da euskaraz ere jarri daitezkeela ohartzeko eta pixkanaka-pixkanaka, aldatzen joanen da.

Euskararen presentzia establezimenduetan gorantz doa. Horrela jarraitzeko, guk, bezero euskaldunok daukagu giltza. Azken finean, euskara, gurea den zerbait da, erabiltzeko eskubide osoa daukagu eta, bizirik mantentzeko, nahitaezkoa da erabiltzea. Ez haurrekin edo adinekoekin bakarrik, baita ere karrivan, udaletxean, ostatuan edo eguneroko erosketak egiten ditugun dendan ere.

Bukatzeko, mila esker merkataritza guztioi, zuen **h a r r e r a g a t i k**.

Euskararen alde egin

dezakezen lana izugarria eta polita da. Oroitu, Mankomunitateko Euskara Zerbitzua prest dagoela bide hortan laguntzeko eta zuen laguntza beharrezkoa dela euskararen normalizazio bateta-

Karlos OSTIZ APEZTEGIA

«Euskaldunak, aukera ematen zaiolarik, euskaraz egiten du»

Malerrekako establezimenduetan 1994ean jarri zen Merkataritzan Euskaraz egitasmoa, euskararen erabilera handitzeko egitasmoa, alegia. Egitasmoaren zer-nola guztia Bertiz Partzuergoko Merkataritza Elkarteko presidentea den Karlos Ostiz Apeztegia gazteak azalduko digu.



Egitasmoaren garapena, nola bizi duzu?

Kanpainaren helburua sektore honetan euskararen erabilerearen normalizazioa bilatzea zen eta, nire ustez, orain geldiune batean gaude. Hau da, Malerrekako Mankomunitateak ardatza, zutabeak paratu ditu eta merkatarioi eraikitzea eraikitzea, egitea dago. Eta gehienetan denborarik ez dugulako eraikitzea geldirik dago, gure inplikazioa eskatzen du eta merkatarion baitan datza eraikitzea, euskararen erabilera bultzatzea. Borondate ona dugu eta denbora gutti gelditzen zaigu ni bezalakoei, euskara ikasi nahi dugunoi. Ni beti saiatzen naiz dakidana erabiltzen

baina euskaraz aritzeko mugatua nago eta gai sakon eta luzea bada gazteleraz egin beharra daukat nahitaez, gainera urduri jartzen naiz eta gaztelerara jotzen dut.

Egitasmoa hasi zenetik hizkuntza aldaketaren bat somatu duzu?

Solasa euskaraz izatea ez da harritzekoa, ni euskaldunarekin konpontzen ez baldin banaiz nire lankide euskaldunarekin moldatzen dira. Aldaketa handiena idazkietan gertatu da; guk lehen dena gazteleraz genuen, orain aldiz, txartelak, FAKTURAK, PUBLIZITATEA,... idazki guzti-guztiak elebizi ditugu, bi hizkuntzatan ditugu herritar guztiak uler dezaten. Aldaketa nabarmena euskaraz idaztearena izan da, behar-

bada aldaketa nagusia. Ikusten dugu herritarra euskalduna dela eta aukera eskaintzen zaion guztietan euskaraz egiten du, nahiago izaten du euskaraz egitea. Dena dela, saltzaile euskaldunik gabeko establezimenduetan ez da euskaraz egiten ahal, ez dago kortsieririk. Doneztebe herria aski erdalduna izan da, nahiz eta inguruko herri tikiak euskaldunak izan, lehenengo aldia da Doneztebeko gazteak euskaraz aritzen direla; Doneztebeko gazteak euskara aritzea sekulako lorpena da.

Egitasmo honen bidez, zuk uste duzu bulkatzen, areagotzen dela euskararen erabilera?

Bai doike; bidea erreztu egiten zaigu, euskararen erabilera bermatzeko, ziurtatzeko aukerak za-

baltzen dira, euskaldunarekin euskaraz egitea erreztu diguzue.

Lortu da hizkuntza ohiturak aldatzea?

Euskaldunari euskaraz egiteko ateak, aukerak zabaldu zaizkio eta euskaldunak beti eskertzen du euskaraz egiteko aukera izatea; nire ustez, gero eta gehiago egiten da euskaraz. Egitasmo honen hizkuntza ohiturak aldatzeko gonbitea luzatzen digu, erdaratik euskarara pasatzeko gonbitea da. Gure dendan bietara egiten ahal da, erdaraz zein euskaraz, eta hala izan behar du bertze tokietan ere.

Egitasmoaren inguruan informazio gehiago behar dela uste duzu?

Ez, aski informazio bada baina, sobera puntuala da; hortaz, nahiz eta informazioa izan baden sarri, borondatearen araberakoa da; ni euskara ikasten ari naiz eta borondatea dudalako saiatzen naiz itzulpenak eskatzen eta euskaraz egiten. Herritarri euskaraz egiteko aukera eman behar zaiolako.

Zer erranen zenieke herritarrei?

Ez naiz pertsona egokia aholkuak emateko, nik euskara ez dakit eta, baina euskaraz bizitzeko aukera eman behar zaie eta ongi etorri euskaraz bizi badira!

Zeren beharra somatzen duzu kanpaina edo egitasmo honetan?

Merkatarien erantzuna, inplikazio handiagoa; nik ulertzen dut adina dela, denbora falta dela,... merkatarioek mugatuak gaude baina, halere, gehiago inplikatu behar dugu. Kanpaina egokia da, ongi zuzendua dago, ongi antolatua eta espero dut denborarekin euskaraz bizitzeko aukera osoa egon dela.



MALERREKAKO EUSKARA
ZERBITZUAREN ARGITALPENA
Nafarroako Gobernuaren laguntzaz

**Euskara
merkataritza
munduan**

Euskararen aldeko hitzarmena sinatu dutenei **ESKER MILA!**

**Malerrekako
Mankomunitateko
herri guzien artean
109 establezimendu izan dira (ia %80), euskara sustatzeko HITZARMENA izenpetu dutenak.**

**Malerrekako
Euskara
Zerbitzuak
ehun eta bederatziz
establezimendu
hauei **ESKERTZA
PUBLIKOA** egin
nahi die
Malerrekako
euskaltzale guzien
izenean, gure
hizkuntza
sustatzearen alde
erakutsi duten
borondatea dela
eta.**

**Hauei beraz,
GURE ESKERRIK
BEREZKOENAK,
eta gure animorik
bultzakorrena
abiatu diren bidean
aitzinerat
segitzeko.**

BEINTZA-LABAIEN

Antolantzena
Bar Esquina
Beintzako Ostaturia
Don Fernandona
Labaiengo Ostaturia

DONAMARIA

Donamariako Benta
Gazteluko Ostaturia
Uxarria Jatetxea

DONEZTEBE

Ados Inmobiliaria
Albaiteritza Zentru Teknikoa
Alustiza Drogeria
Amaur Sukaldeak
Amezitia Ostaturia
Apeztegia Berria
Arin Zerbitzuak
Arozena Ostaturia
Askin Taberna
Bazar 100
Bearzana Pentsuak
Beatriz Ileapaindegia
Belarra Kafetegia
Belen Loredenda
Bideoson
Blas Liburudenda
Bordatxo Dantzalekua
Botika
Daniel Elortza Harategia
Ederki Tailerrak
Ekaitza Taberna
Elkar Asesoria
El Café Kafetegia
Ezkurra Erreategia
Gurutze Denda
Hamabi Ostaturia
Honorio Taberna Denda
Ibarburu Jatetxea
Ibarrola Denda
Irrintzi Ostaturia
Itxaso Arraindegia
Jubilatuen Etxea
Kalash Bitxidenda
Kamamila Belardenda

Kaxerna Ostaturia
Kontxa Ostaturia
Lakanbra Motodenda
Lakar Etxea
Landa Etxea
L.Martin Harategia
Maite Ileapaindegia
M^a Cruz Lentzeria
M^a Jesus Iribarren
Marta Ileapaindegia
Maylin Ostaturia
Mena Argazkidenda
Mendaur Motor
Mendi Txuri eraikuntza materiala
Miren Papertegia
Nerea Oinetakoak
Ostiz Etxea
Pikabea Boutique
Rodri Elektrogailuak
Ruiz Autozerbitzua
Ruiz Altzariak
Saioa Boutique
Saldias Harategia
Taberna Etxea
Telletxea Jantxidenda
Titi Ostaturia Anaiak
Tximeleta Jantxidenda
Txirrista Jantxidenda
Zaldua Argazkidenda

ELGORRIAGA

Aitziber Janaridenda
Herriko Ostaturia
Hilarion Jatetxea
Maitxenea Fonda
Martin Ibarra Aroztegia

EZKURRA

Barranka Ostaturia

ITUREN

Altxunea Erreategia
Aurtizko Ostaturia
Bereau Janaridenda
Botika
Herriko Ostaturia

LEGASA

Gasnategia Etxart
Lakar Etxea
Opoka Ostaturia

NARBARTE

BKZ
Botika
Esther Loredenda
Herriko Ostaturia
Janaridenda

OIEREGI

Hotel Mugaire

SALDIAS

Olasoa Okindegia
Ostaturia

SUNBILLA

Bibi Janaridenda
Botika
Bustiz Ostaturia
Fonda Ostaturia
Iribarren Harategia
Iruubieta Jatetxea
Iturburu Ostaturia
Maia Ostaturia
Maite Ileapaindegia
M^a Jesus Harategia
Pixarreneau Janaridenda
Tabakoak

URROTZ

Herriko Ostaturia

ZUBIETA

Etxekenea
Errandonea Ostaturia
Herriko Ostaturia
Santxokoa Okindegi-Ostaturia

Ortzirala, uztailak 31

7,30etan altxaferoak bestei hasiera emanez. Txistulariek alaituko dituzte karrikak gero. **9etan** Baztan-Zopak Gazteluko Ostatuan. Ondoren bertan, musika JOXE ANGEL akordiolariarekin.

Larunbata, abuztuak 1

10etan kalejirak. **11etan** mus txapelketa. **1etan** pilota partiduak neska-mutilen artean. **5etan** plater tiraketa herrikoentzat. **8etatik 10etara** eta **12etatik goizeko 5ak arte** HAITZAMA taldea.

Igandea, abuztuak 2

10etan kalejirak. **1etan** aizkora apostua: Patxi Mindedgia eta Belarra, Senosiain eta Etxeberriaren aurka. **5etan** trikitixak. **6etan** esku pilota partiduak. **7etan** Doneztebeko dantzariak. **8etatik 12etara** dantzaldia HAITZAMA taldearekin.

Astelehena, abuztuak 3


10etan kalejirak. **11etan** herri gosaria. **1etan** aizkora apostua, herritarren artean. **2etan** zikiro-jatea, Estitxu Arozena eta Bittor Elizagoien bertsolariekin. **5etan** Herri Kirolak. **Arratsaldez eta gauzez** dantzaldia JOXE ANGELrekin.

Asteartea, abuztuak 4

Santo Domingo Eguna
10etan kalejirak txistularie-



kin. **11,30etan** Meza Nagusia. Ondoren salda, Gazteluko Ostatuan. **Goizez eta arratsaldez**, kars eta gaztelu haiztua, Disniruñaren eskutik. **Arratsaldez eta gauzez** dantzaldia JOXE ANGEL akordiolariaren eskutik. Bestak ongi akitzeko txokolate jatea Gazteluko Ostatuan.



Joan den urteko zikiro-jatea aski animatua izan zen. Silveira eta Elizagoien bertsolariak arpanean ere aritu ziren, pentsa!

ttipi-ttapa
internet
<http://www.jalgi.com/topagunea/ttiji-ttapa>
E-mail: ttiji-ttapa@topagunea.jalgi.com

Iturgintza eta kalefakzioa
Valentin Cubero
Tfnoa.: 948 45 17 63 • GAZTELU

GAZTELUKO OSTATUA
Besta ederrak opa dizkizue bezero guziei!
Zikiro eta arkumea parrillan aukeran
Tfnoa: 948 45 01 05 • GAZTELU

BUSTITZ
OSTATUA
Lekueder
© 948 45 05 04
SUNBILLA

LINDA estetizista

- ✘ Depilazio hotza eta beroa
- ✘ Aurpegi garbitzeak
- ✘ Makilaiak. Kosmetikoen salmenta
- ✘ Solarium-a

© 948 450 371
Karrika Nagusia • SUNBILLA

ESPELOSIN
ERAIKUNTZAK
Auloa baserria
Tfnoa: 948 45 07 73
SUNBILLA

GOIZUETA

Adierazpen eta eritzi askatasunaren alde

Egin egunkaria eta irriatiaren itxieraren kontrako mozioa onartu zuen Udalak

ESTEBAN AROZENA

Egin egunkaria eta izen berdineko irriatiaren itxiera gogor salatu zuen Udalak uztailearen 22an egindako osoko bilkuran, ahobateko eta ahobeteko baiezkoa emanaz adierazpen eta eritzi askatasunari aldi berean.

Heri Batasunak aurkeztutako mozioa zen hau, eta bertan, aipatutako puntuez gain, operazio berean atxilotutako lagunaren eskubide indibidualak errespetatzea exijitzen zen. Espainiako Gobernuari berriz, errepresioaren bidea utzi eta euskal herritarren gehiengoak eskatu bezala, elkarriketaren bideari eustea exijitzen

zizaion. HBren ustez, konponbide demokratikoaren inguruan gauzatzen ari den gehien-go sozial berriak egonezina sortzen die Madrilgo agintariei, eta hau apurtzeko, bitarteko guztiak jarri nahi omen dituzte martxan, kasu honetan komunikabide independenteak ixtea.

Gai honeki segituz, esan behar da, herriko Hitz Egin plataforma zabaldu eta indarberritu egin dela eraso honekin, bertako kide den Xabier Mikel Huizik esan zigunez. Egoera honen aurrean, zer egin litekeen pentsatzen ere hasiak dira dagoeneko, eta Amabirjinak gainean direnez, festa egun

horietan taberna bat irekitzeko asmoa aurrera doa. «Egin eginen dugu» leloa gauzatu ahal izateko dirua lortzea izanen omen da tabernaren helburua, Xabier Mikelen hitzetan.

Petrixenea eta Epeleko-txokoko pinuak enkante bidez saldu ditu Udalak

Radiata motako pinuez osatutako bi lote adjudikatu berriak ditu Udalak enkante edo subasta bidez.

Petrixenea izeneko parajeko 1.822 pinuak (1.569 metro kubiko), *Maderas Erkiziak* atarako ditu, Lesakako enpresa honena izan baitzen, 12.800.000 peze-



Egin egunkariak eta irriatiak herritarren sustengua jaso dute

tarekin, aurkeztutako lau proposamenetan onena. Epeleko-txokoko 827 pinuak berriz (1.217 metro kubiko),

Iturberri S.L. rentzatzaren dira 10.555.000 pezetaren truke. Hemen zazpi eskaintza aurkeztu ziren.

ARESO

Pilotalekua moldatzeko proposamen ezberdinak

HB eta alkatearen taldea ez dira ados jarri aukeratu du

JUANA M^a SAIZAR

Badira urte batzuk pilota eskola herrian martxan jarri zela eta dozena bat umetxo eta gazte ari dira lanean. Orain dela denbora pix-

ko bat HB taldekoek pilotalekua konpontzeko aurrekontu bat aurkeztu zien pilotarien gurasoei, 3 milioikoa gutxi gora behera. Beranduxeago, alkateari berrikuntza ugari horiek au-



Frontoiaren moldaketari buruz iritzi ezberdinak daude herrian

rera ateratzen ahalegintzeko eskatu zioten. Alkatea eta bere taldekoek lan horien aurrekontua askoz handiagoa dela erantzun zuten, 12 milioi ingurukoa eta

konponketa horiek ezin direla aurrekontu txikiakin egin. Hori bera gurasoei aurkeztu zien. Oraingoz Hirurteko Planean sartuta dauden obrak eta eginbeharrak

lehentasuna omen dute eta, frontoiaren konponketak itxaron egin beharko du aurtengoz. Gero, ikusiko omen dute, diruaren arabera zer eta nola egin.

Euskal Herriko harrijasotze txapelketa igandean jokatu da

Harri txikiekin arituko dira sei kirolari

JOSEBA AZPIROZ

Abuztuaren 2an, arratsaldeko 6etan, Euskal Herriko harrijasotze txapelketa harri txikiekin egingen da plazan. Bertan Agustin Irureta-goiena 'Izeta I', Jose Ramon Irureta-goiena 'Izeta II' (aurreko urteko txapeldu-nordea), Jose Antonio Gisasola 'Zelai' (aurreko urteko txapeldua), Francisco Javier Valenciano, 'Zelai luze', Jose Antonio Ostolaza eta Luis Mari Telleriak parte hartuko dute. Neurketan erabiliko dituzten harriek, pisu hauek izanen dituzte: 100 kiloko bola, 112'5 kiloko kubikoa, 125 edo 150 kiloko zilindrikoa eta 125 edo 150 kiloko errektangularra. Kirolari bakoitzak hiru minutuko txandak izanen ditu pisu ezberdineko harri bakoitza altxatzeko.



Tanborrada izanen da pestetan

Aspaldiko ohitura berreskuratuz, aurtengo San Tiburtzio pestetan tanborrada egingen da. Iraulgi Gazte Asanbladak antolatutako ekitaldia abuztuaren 13an izanen da, afalaurrean eta afalondoan, beraz, makilak eta danborrak prestatzen joateko deia luzatu dute. Argazki zaharrea Begoña Heras, Martin Azpiroz, Tomas Erbiti, Iñigo Iparra eta Fermintxo Ilarregi ageri dira danborra jotzen.

Argazkia: Ferminekutzia

Denetara lau harri altxatu beharko dituzte: 150 kilotako harria aukeratu beharko dute zilindrikoa eta errektangularren artean eta 125ekoa, 150ekoaren ezberdina altxatuko dute.

Zenbait kultur ekitaldi eta lan-poltsa antolatu ditu Plazaolako Partzuergoak

Plazaolako Partzuergo Turistikoko lan-poltsa bat osatzea erabaki du. Bertatik inguruko denda, jatetxe eta hotelen diren lan eskeintzei erantzungo zaie. Zerbitzu hau, bai langileentzat bai establezimenduentzat dohanekoa da. Horretarako Bitarte (lanbide-orientazioa) taldeko Pili Vicente teknikariaren laguntza dute.

Ostalaritzan lan egiteko interesa duten pertsonen Plazaolan bertan har dezakete izen-emate orria. Orri honi curriculum erantsi behar zaio eta Plazaolan bertan utzi edo Bitarteko teknikariari eman behar zaio.

Bertzalde, Partzuergoak 'Kultur 98' izeneko programazioa antolatu du abuztu eta irailarako. Bertakoen parte hartzea eskatzen eta eskertzen badute ere, ekitaldi hauek turistei zuzenduak daude eta musika emanaldiak izanen dira. Hona hemen egitaraua:

Abuztuaren 11n, asteartea, 'Alboka' taldea arituko da. Abuztuaren 21ean, ostirala, Erramun Martikorena etorriko da eta irailaren 4an, ostirala, 'Ganbara' taldea izanen dugu. Ekitaldi guztiak zineman izanen dira, arratseko 8,30etatik aurrera.

Drogomenpekotasunaren prebentzioan aritzeko lanpostu deialdia

Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren Mankomunitateak Drogomenpekotasunaren Prebentzioan aritzeko lanpostu baten deialdia luzatu du. Kontratuaren iraupena abuztuaren 31 artekoa izanen da, beste urte batez luzagarria eta proposamenak aurkezteko epea abuztuaren 5a arte da (Leitzako Osasun Etxean). Frogak abuztuaren 6an egingen dira. Parte hartu ahal izateko honako titulazioa behar da: Psikologia edo Pedagogian Lizentziatua edo LH2ko Osasun edo Gizarte Adaptazio arloko titulua.

flash

Larunbatean kontzertua plazan

Larunbat honetan, abuztuak 1, gaueko 12etan, herriko plazan, eskualdeko Herri Batasunak antolatutako kontzertua izanen da. Bertan, Anje Duhalde, Joxe Ripiau eta Skunk taldeek joko dute. Sarrera 1.000 peze-ta kobratuko dute.

Igandean Aizan elkartearen txirrintulari proba

Aizan Kirol Elkarteak, VI. Aizan K.E.ko Sari Nagusia izeneko txirrintulari froga antolatu du datorren iganderako, abuztuak 2. Froga goizeko 10etan hasiko da eta bi zati izanen ditu. Lehendabizi Leitza, Areso, Leitza, Usategietako gaina ibilbidea egingen dute eta ondoren, erlojuaren aurkako froga Leitza-Usategietako gaina ibilbidean.

Egur loteen zozketa

egin du Udalak. Hogeita hamar lote markatu dira: Haritz Handiko azpialdeko haritz amerikanoetan (1etik 10era) eta Urdola Txikiko haritz amerikanoetan (11tik 30era).



BAZTAN

15.000 lagun elkartu dira Baztandarren Biltzarrean

Elizondoko orga izan da aurtengo irabazlea

TTIPI-TTAPA

Elizondoko *Beti Zurrutan* koadrilak aurkeztutako orga apainduak irabazi du aurtengo Baztandarren Biltzarrean sari nagusia. Erreka bateko urak mugitzen zuen errota ageri zen 50.000 pezetako saria eskuratu zuen orga honetan. Bigarren saria (25.000 pezeta) Zigak eskuratu zuen. Hauek 1480. urtean egindako Pilarren ermita eta bertako fraidea erakutsi zuten. Oronoz-Mugairikoak izan ziren hirugarrenak, *Lehenengo kisulabea* izeneko orgarekin. Guzira 13 orga agertu ziren Elizondora, 11 herritakoak, Gazte Asanbladarena eta *Egin* egunkariaren aldekoa.

1.600 lagun joan zi-



Elizondoko Beti Zurrutan taldeak aurkeztutako orga honek eskuratu zuen lehendabiziko saria

Argazkiak: TTIPI-TTAPA TELEBISTA

ren bazkaltzera Merkatu Plazara eta bazkalondo eguzkitsuan dantzatu eta kantatzeko aukera polita izan zen. Jakina denez, iaz ez zen besta hau

ospatu. Aurtan antolatzailerik gustora gelditu dira jendeak emandako erantzunarekin (ospakizunean nahiz antolaketan parte hartze-

ko orduan). Rakel Goñik zioenez, «*herriek beraien orgekin lagundu dute eta baikor gauden ere, datorren urtean ere eginen da, seguraski*».



Zigako orgak Pilarren ermita eta bertara bildutako fededunak erakutsi zuten. Eraikuntza egi-teaz gain, antzerkia ere egin zuten.



Ornoz-Mugairikoek Lehenengo kisulabea egin zuten harriz. Elizondora agertutako orgen artean pisutsuena zen, segurik.

flash

Margo tailerra kanpoan

Iaz bezala, Jose M^a Apezetxea eta Tomas Sobrino pintoreek zuzenduko dute ikastaroa. Abuztuaren 3, 5, 7, 10, 12, 14, 17, 19, 21, 24, 26 eta 28an egingen da. Izen ematea 948 581279 telefonoan egin behar da eta matrikula 6.000 pezetakoa da.

Baztan Balleko I. mendi-bizikleta Irekia

antolatu du Gartzain Kirol taldeak, Balleko Udalaren laguntzaz eta Iruñeko Kutzaren babesarekin. Hiru proba burutuko dira, abuztuaren 9an Zigan, abuztuaren 16an Amaiurren eta abuztuaren 22an Oronoz-Mugairin. Izen-ematea telefonoz (948580813) edo e-posta bidez (pb13593@autovia.com). Proba bakoitzean parte hartzeko 700 pezeta ordaindu behar da.

Zeberia errekan

ur-etorria neurtzeko estazioa egiteko lanen kontratua onartu du Nafarroako Gobernuak Herrilan, Garraio eta Komunikabide Departamentuak. Iruñetik 37,4 milioiko inbertsioa egingen da, milioi bat aurtengo aurrekontuaren barrenean eta gainerako 36,4 milioiak datorren urtekoan.

MENDI OSTATUA
Santiago 25 - © 948 580313
ELIZONDO

OPS Ingenieros S.L.
• **Topografi lanak:** Lur neurketak, balorazioak.
• **Nekazal proiektuak:** Bideak, ur deposituak, etxebizitzak, granjak, nabeak...
Barañain Etorb.2 • IRUÑA • Tel: 948267453-948267602

Eskisaroi jatetxea
Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013
ELIZONDO

JATETXEA
© 948 580101
Santiago 1
ELIZONDO
Gulargaz



Bestetan gehien goxatzen dutenak gazteak omen dira, baina Zigako jubilatuek ere ederki pasatu zuten joan den urteko bestetan. Argazkia, bazkariaren ondotik aterria da.

Ortzilerie, abuztuak 7
9,30etan Baztan-zopak.
12,30etatik 5etara dantzaldia HARITZ taldearekin.

Larunbata, abuztuak 8
10etan goiz-argi soinuak.
12etan haur jokoak eta Gorritiren ikuskizuna (pottokak, basurde tailak, zakurrak, aretzeak, ahare eta

oilarjokoak...). 2etan haurren eta jubilatuen bazkaria. 2,30etan herriko gaztediaren bazkaria Tellerin. 8,30etatik 10,30etara dantzaldia GAUBELA taldearekin. 10,30etan Zubietako zanpantzarrak. Gaztediaren afaria eta ondotik, gautpasa GAUBELA taldearekin.

Igandea, abuztuak 9
10etan goiz-argi soinuak.
12etan suziriaren botatzea eta ezkil-errepika. 12etan mus txapelketa. 5etan Baztango I. mendi-bizikleta txapelketa. 6,30etan Baztango dantzariak. **Arratsalde eta gauz** dantzaldia MODESTOrekin.

Astelehena, abuztuak 10
San Lorentzo Eguna
10etan goiz-argi soinuak.
11etan Meza Nagusia San Lorentzoren ohorez.
12etan Baztango dantzariak. Ondotik, hameketa-koa denentzat, herriko plazan. 5etan pilota partiduak palaz. **Arratsalde eta gauz** dantzaldia MUXU-

TRUK taldearekin.
Asteartea, abuztuak 11
10etan goiz-argi soinuak.
12etan mus eta pala txapelketaren finala. 2,30etan herri elkartasunaren bazkaria, zikiro besta. Arratsalde eta gauz dantzaldia MODESTOrekin eta Gaixoa Ni kantatuz akabaila emanen zaie beste.

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI
Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

Uztailaren 21etik aitzinera
MERKEALDIAK

Arropa eta teletan

Ezkontza bazkaritan ematen diren
oroitgarriak egiten ditugu

Artesana
Okindegia

Santiago, 20 • © 948 581 407 • ELIZONDO



SOULE

Hileta artea

© 948 453 444

© 908 779 903

ARIZKUN

BAZTAN
FUNERARIA

EHORZKETA ZERBITZUAK • HILKUTXEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA • TRASLADOAK
Jaime Urrutia 53 • ELIZONDO
© 948 580373 • 908 776176

SARA

Ikasturte hondarreko bestak egin zituzten eskola eta ikastolako haurrek


Ikastolakoak Hegoaldean gandi ere egon dira bidaiari

MIXEL ETA JACQUELINE

Udaz baliatuz, elkarrekin bere urteko jai egun nagusia antolatzen dute diru pixka baten baztertzeko gisan. Era berdinsuan iragaiten dira: dela pilota, dela dantza, bazkari eta afari. Askotan xardina edo atun erreka jasta daiteke. Normalki dantzaldi batekin bururatzen dira.

Zazpiak Bat dantza taldeak berea uztailearen 18an egin zuen. Ez balinbada ere joan den urteko heinerat aillatu, ehun eta larogoi bat afaltiar baziren eta giroa benetakoa zen.

Bertze kirol taldeen bestak agorriean zehar ospatzekoak dira: 8an Sarako Izarra Rugby taldearena eta 22an Sarako Izarra Pilota taldearena.



Kontrabandisten Lasterkaldia agorrilaren 23an

Andere dena Mari igaro eta lehen igandean iragaiten den hitz-ordu ohikoa dugu. Mugaz bi aldeetako hemezortzi herriek parte hartzen dute eta bakotxetarik bi lasterkari izaiten dira Zazpi Fagoko itzuliaren egiteko. Kirol ekitaldi honetaz gain, egun osoan eskulan eta bertze lekuko ekoizpenen azoka izanen da. Erran bezala, agorrilaren 23an burutuko da lasterkaldia. Arratsaldeko 5etan abiatuko dira 36 lasterkariak, bere zama bizkarrean dutelarik. Gan den urtean Fabrice Egiababal hendaiarrak irabazi zuen, baina errekorra Joxe Oronoz saratarraren esku dago 1988az geroztik (40'26").

flash

Hutsak zuzenduz

Azken TTUPI-TTAPAN Larrungo tren ttiki-ko erreportaiaren baitan huts bat egin genuen. Elias Tapia Sarako lezeetako zuzendaria da bakarrik, eta ez tren ttiki-koa, guk aipatu bezala. Ardura hori Olivier Brousseren gain dago.

Barnetegia Saran

Ohituak garen bezala, Donostiatik etorri hiru Euskaltegi bateratu dira eta barnetegia jarri dute Eskola publikoan. Ikastaldiak uztailearen erditsuan abiatu dira eta agorrila amaitu artean bi aste txandak eginen dituzte.



Maderas GOMEN

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • ☎ 948 580 645

MENDIALDE Jatetxea



Etxeko gasnak saltzen ditugu
Dantxarinearako bidean, 66. km.
AMAIUR • Tfnoa: 948 453 060

ARMUA Jatetxea



Zugarramurdiako karretera 3. Km
☎ 948 599 131 - URDAZUBI

ZALDUBI



Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • ☎ 948 580 562 IRURITA

ZUGARRAMURDI-URDAZUBI

Historiaurreko txapelketa berezia jokatu da lezeetako bidean

Galizako musika zeltiarra aditzeko aukera izanen da lezean

MARGARI ETA KORO

Aranzadi elkarteak eta Xareta antolatua, gan den uztailaren 11 eta 12an Pottokaren Bidean (Urdazubi, Zugarramurdi eta Sarako lezeak lotzen dituen bidexkan) Europako 'VIII. Historiaurreko propultsagailu eta arku tiraketa txapelketa-*ren*' kanporaketa jokatu zen. Txapelketa hau nahiko berezia da, arma bakoitza partehar-tzaileak berak eskuz egi-na egon behar baita eta gainera material natu-ralekin, lehen egiten zi-ren gisan (makila, lar-rua, harria, hezurra...).

Denetara, herrialde desberdinetako 90 partehar-tzaile ziren eta beren lana bidean emanak ziren animalien irudie-tara botatzea zen. Larun-batean Urdazubitik Zugarramurdira pro-



Arku tiraketa txapelketak jendearen ikusmina piztu zuen. Europa osotik etorritako tiralariak aritu ziren.

pultsagailuarekin aritu ziren eta biharamonean Zugarramurditik Sarara arkuarekin.

Txapelketa bitxi hau ikusteko aukera izan zuen bidean zebilen jendeak.

Musika zeltiarra lezeetan

Bertziko Turismo Partzuergoak antolatuta, heldu den abuztuko 6 eta 7an Galiza alde-rik etorritako musika zeltiarra aditzeko auke-

ra izanen dugu. Arra-tseko 9,30etan eta leze-tan hasiko dire emanal-diak: 6etan Xose Ma-nuel Budiño arituko da (sarrera 1.500 pta) eta 7an Luarna Lubre tal-dea (sarrera 2.000 pta).

Urdazubiko Udako Lehen Feria giro onean burutu zen

Uztailaren 12an os-patu zen Urdazubin Bertziko Turismo Par-tzuergoak eta Ceder-na-Garalur erakunde-ak lehen aldiz antola-tutako Udako Feria.

Inguruko ofiziale-ek etxean egindako gasnak, gozokiak, pa-tarrak eta eskulanak ekarri zituzten Urda-zubirat, jendeari iku-si, dastatu eta eroste-ko aukera emanez. Musika ere ez zen fal-tatu, goizean Arizkun-go Javier Larralde txis-tularia eta Juan Miguel Iriarte atabalariaren es-kutik eta arratsaldean, Elizondoko *Gorra-mendi 10* taldearen txanda.

Monastegian, *Zabor Artiz* eneko era-kusketa zabaldu zen. Lau lagunek, birzi-klatutako materialeek-kin agindako arte lan-ak ikusgai zeuden erakusketa honetan.

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL AGENZIA

- **Zurich Aseguruak**
 - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
 - Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
 - Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
 - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
 - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tfnoa eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO

OSKORRI *liburudenda*

- Liburuak-prentsa-mapak-gidak
- Argazkilaritza materiala
- Papertegia-inprenta

© 948 592 245 • Petrinea • **ORNOZ-MUGAIRI**



BURKAITZEA

ostatu • jatetxea

Zugarramurdiko errep. 3 km.
© 948 59 91 95 • URDAZUBI



BAZTAN

ALTZARIAK
zurgindegia

- Sukalde, logea, jangela eta egongelarako mogleak
- Estiloko mogleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

EZKONTZAK

Jabier Agustino Jaunarena eta **Arantxa Jauregi Juantorena**, Eraso eta Ezkurrakoa, uztailaren 4ean.
Filin Agustino Jaunarena eta **Blanca Aranguren Larrea**, Eraso eta Iruñekoa, uztailaren 4an.
Jose Miguel Iriarte Bañez eta **M^a Carmen Elizaintzin Oharriz**, Iruña eta Iruritikoa, uztailaren 9an.
Juan Miguel Bera Jauregi eta **Bienvenida Rodriguez Diaz**, Iruña eta Salamancakoa, Elizondon, uztailaren 4an.
Francisco Javier Bailon Ugarte eta **Itziar Bidegain Danboriena**, Elizondo eta Iruritikoa, uztailaren 4an.
Julio Lameirinhas Cambronero eta **M^a Amalia Lertxundi Agerre**, Erratzu eta Iruñakoa, uztailaren 11n.
Antonio Ariztegi Mariezkurrena eta **M^a Izaskun Altxu Ariztegi**, Ituren eta Donostiakoa, uztailaren 17an.
Francisco Ignacio Trantxo Muro eta **Ines Azkarate Morales**, Donostia eta Iruñekoa, Elizondon, uztailaren 18an.
Francisco Gomez Mora eta **M^a Jose Mindegia Etxeberria**, Albacete eta Leitzakoa, ekainaren 27an.
Esteban Telletxea Ezkurra eta **Nuria Elisa Perez Romero**, Saldias eta Berakoa, uztailaren 11n.
François Xabier Martin eta **Angela Reguera Castro**, Angelu eta Doneztebekoa, ekainaren 19an.

JAIOTZAK

Manex Erdozain Ariztia, Urdazubikoa, ekainaren 20an.
Imanol Iribarren Jaurena, Urdazubikoa, ekainaren 23an.
Lorea Iribarren Jaurena, Urdazubikoa, ekainaren 23an.
Beñat Barneche, Sarakoa, uztailaren 9an.
Marta Dorregarai Oiaregi, Elizondokoa, uztailaren 12an.
Ixaka Labadie Garcia, Etxalarkoa, uztailaren 5ean.
Aitana Aranburu Alduntzin, Leitzakoa, uztailaren 15ean.
Garazi Narbarte Oiartzabal, Goizuetakoa, uztailaren 10ean.
Oihana Etxeberria Burlada, Arantzakoa, ekainaren 22an.
Eloy Garcia Otxandorena, Doneztebekoa, uztailaren 18an.
Izaskun Garcia San Miguel, Berakoa, uztailaren 4an.
Iratxe Mikelarena Bengoetxea, Berakoa, uztailaren 6an.

HERIOTZAK

Julian Vicente Irigoien Jaimerena, Erratzukoa, uztailaren 17an, 84 urte.
Francisco Agerre Iribarren, Erratzukoa, uztailaren 19an, 48 urte.
Luis Matxin Iso, Iruritikoa, uztailaren 21ean, 69 urte.
Miguel Baleztena Gurbindo, Leitzakoa, uztailaren 20an, 83 urte.
Luis Erkizia Maia, Lesakakoa, uztailaren 20an, 89 urte.
Jose M^a Perurena Almandoz, Goizuetakoa, uztailaren 20an, 69 urte.
Juana Loiarde Eskudero, Goizuetakoa, uztailaren 12an, 71 urte.
Juan Jose Txoperena Matxikote, Igantzikoa, uztailaren 20an, 52 urte.
Juan Hernandorena Irigoien, uztailaren 12an, 80 urte.
Micaela Makuso Telletxea, Doneztebekoa, uztailaren 22an, 94 urte.

ZORIONAK!
Oparia ematen lehenak izan nahi dugu



Haurtxoa sortu eta etorri Iruñeko Kutxara berehala. Aldatzeko saskitxo hau, haurraren garbitasunerako produktuekin betea, ematen dizugu.

Ez ahantzi familiaren liburuxka!

IRUNGO KUTXA

**Juan Jose Txoperena
 Igantziko Alkatea
 berriki hila**

«Ez daukanak
 aski ongi daki
 zer den edukitzea»

Nekez ahantziko zaigu
 gure alde
 egin duzun guzia.



Eskolako ikasle, irakasle eta gurasoak
 Igantzi, 1998-VII-20



**Juan Jose TXOPERENA
 MATXIKOTE
 Uztailaren 20an hila**

«Goraiya bedi hire izena,
 irauñ beza hire leinuak,
 gera bekigu hire arnasa,
 gogoan bezala ondoan ere»

IGANTZIKO HERRI TALDEA



**Juan Jose TXOPERENA
 MATXIKOTE
 Uztailaren 20an hil zena**

«Bai hotza eta ubela
 heriotzaren dolu gela,
 gurean dugu gaubela
 gaua bezain egun goibela»

IGANTZIKO ZURE LAGUNAK

DATUAK.....

❖ *Bidasoako Jaialdiak antolatatu ditu Bertizko Partzuergoak aurten lehendabizikoz.*

❖ *Uztailean abiatuak dira, baina abuztuan eginen dira ekitaldi gehientzuenak.*

❖ *Folk musikak eramanen du abuztuko erritmoa, baina izanen da gauza gehiago ikus-teko modua ere. Azpimarragarriena, beharbada, Bidasoako I. Laburmetrai Lehiaketa. 10 milioiko aurrekontua du.*

❖ *Denetara, kultura arloan orain arte batere ohikoa ez den dirutza erabili dute, 25 milioi.*

❖ *Egitaraua osatzeko denboraz eskas xamaribili direnez, akautu bezain laster hurrengo urtekoa pres-tatzen hasteko asmoa dute.*

TESTUA ETA ARGAZKIA:
ASIER G.

✍️ **Nora ENETERREAGA** Bertiz Partzuergo Turistikoko gerentea

“Bidasoako Jaialdiak bisitari nahiz bertakoentzat pentsatuak daude”

ZER IZAN DA BIDASOAKO JAIALDIAK EGITE-RA BULTZATU ZAITUZTE-NA?

Ikusten dugu udan turista aunitz etortzen dela zonaldera, eta natura aldeko erakargarritasun guziak kenduta gutti dagoela egiteko. Gainera, Nafarroako Jaialdiak honat inoiz ez direla ailegatzeko kon-tutan hartuta, pentsatu dugu urtero horrelako ekitaldiak antolatzea garrantzitsua izan daitekeela. Orain beharbada ez, baina hemendik urte batzutura bisitariak zonalde hau aukeratzeko arrazoia izan daitezke Bidasoako Jaialdiak.

BERTZETIK, CULTUR 98 DELAKO PROGRAMAZIOA ERE MANTENDUKO DA AURTEN, EZTA?

Bai. Cultur 98 Nafarroa osoan egiten da, Turismo Departamentuak eta Bianako Printzeak antolatua. Horko programazio guzia turistari begira egin dago. Gurea, berriz, bi publikori zuzendua dago. Alde batetik, bisitariak interesatzen zaizkigu, gastatzeko diru nahikorekin etortzen direlako gehienetan. Bertzetik, ordea, zonaldean horrelako aktibitatek ez dela izaten pentsatzen dugu, eta hemengo jendeari gustatuko zaiola Carlos Nuñez edo Kepa Junkeraren kontzertu bat ikustea, hurbilean suertatu



«Zinemaren munduan sartzeko, laburmetraiak dira lehendabiziko pausua».

ezkero.

ETA BI PUBLIKO HORIEK KONPATIBLEAK DIRELA IDURITZEN ZAIZU?

Nik uste baietz. Adibidez, aurten programatu ditugun kontzertuak jende guziari gustatzen ahal zaizkiola, bertako nahiz bisitari, zahar edo gazte... saiatu gara ahalik eta jende gehienari idekitzen.

AKTIBITATERIK AIPAGARRIENA LABURMETRAIEN

► *“Orain beharbada ez, baina hemendik urte batzutura jaialdi hauek izan daitezke bisitariak zonalde hau aukeratzeko arrazoia”*

I. LEHIAKETA DA, EZTA?

Bai. Egia erran ez dazkigu horretan aritzen den jende aunitz dagoen zonaldean, baina argi dagoena da hemen pelikula aunitz grabatu dela, eta horrek erran nahi du tokiak zerbait erakargarria izanen baldia. Donostiako Zinemaldia ondoan dagoela eta horrelako lehiaketa gutti egiten dela kontuan hartuta, uste dugu ongi ateratzen ahal dela. Gazte jende aunitz dago zinemaren munduan sartu nahi duena, eta

laburmetraiak izaten dira lehenengo pausua.

BERTZALDE, HEMENGO MUSIKA EDO ANTZERKI TALDERIK EZ DA IKUSTEN EGITARAUAN.

Hasiera hasieratik hemengo taldeekin jotzea pentsatzen genuen, baina nahiko denbora guttirekin egin dugu, eta azkenean nik uste motz gelditu garela alde horretatik. Hala ere, udan zehar antolatu ditugun azokekin beteko dugu hutsune hori. Bertan, akordeolariak eta txistulariak tokia izanen dute.



URTXINTXA Txirrindulari taldea



Kadete eta jubenil mailako taldeekin batera, Leitzako Aizan taldeko infantilak ageri dira erretratoaren aurrealdean

Haur adinetik pasatuta ere txirrindulan segitzeko gogoak sortu zuen Urtxintxa taldea

Orain dela urte batzuk arte, eskualdeko herri koxkorretan jubenil maila arte izaten ziren txirrindulari taldeak. Pixkan-pixkan, ordea, gero eta haur gutiago dagoenez, zaila ez ezik ezinezkoa egiten da honelako taldeak herriko kirolariek soilik mantentzea. Hori dela eta, duela zortzi urte sortu zen Urtxintxa taldea, Leitzako Aizan, Elizondoko Baztandarra, Doneztebeko Erreka, Berako Gure Txokoa eta Lesakako Beti Gazte elkartetako txirrindulariak bilduz.

Azken urteotan kadete eta jubenil mailako taldeak errepideratu ditu. Aurten ere denboraldi berriari ekin diote. Nafarroako txapelketan parte hartzen ari dira eta, momentuz, garaipenik lortu ez badute ere, gogor segitzen dute lanean. Abuztuan, Iruñeko Itzulian parte hartuko dute jubenilek eta irailean, berriz, Castellon aldera joanen dira, bertze itzuli batean parte hartzera.

Kadeteak (Urtxintxa-Aceralia)

Txirrindularia	Herria
Imanol Etxeberria Urrutia	Saldias
Alberto Subizar Oharriz	Legasa
Iker Baraibar Zubitur	Leitza
Iñigo Sagastibeltza Arregi	Leitza
Gorka Bermejo Hualde	Leitza
Iñigo Irazoki Ezkurdia	Leitza
Iker Mariezkurrena Imaz	Sunbilla
Eneko Aizagirre Lasarte	Leitza
Pablo Maritxalar Etxenike	Sunbilla
Agustin Ariztia Danboriena	Zubieta
Garikoitz Atxa Agerre	Almandoz
Iñaki Mihura Arizaleta	Elizondo
J.Ramon Elgorriaga Oiarzabal	Bera
Xabier Sobrino	Elizondo

Kadeteak (Urtxintxa-Sigma)

Peio Lizartza Saizar	Leitza
Igor Bereau Urroz	Leitza
Ion Maritxalar Etxenike	Sunbilla
Juan M ^a Irigoien Urroz	Elizondo
Arkaitz Genua Mutuberria	Leitza
Roberto Reta Salan	Iruña
Jose M ^a Elgorriaga Almandoz	Lesaka
Unai Amador Vazquez	Hondarribia
Gaizka Zelaieta Iturria	Lesaka
Imanol Errandonea Ganboa	Bera

Zuzendariak: Fernando Gartzia (kadeteak) eta Koldo Alduntzin, Carlos Sagastibeltza eta Jose Luis Larralde (jubenilak)

Klubaren datuak



Elkartearen izena:

URTXINTXA

Sorrera: 1990

Aurrekontua: 3 milioi pezeta inguru (bi taldeak)

Lehendakaria:

Salvador Iantzi (Lesaka)

Idazkari-diruzaina:

Pedro Bañares (Doneztebe)

Bokalak:

Txema Eugi (Elizondo)

Santi Ibargarai (Erratzu)

Alberto Retegi (Bera)

Fernando Gartzia, Koldo Alduntzin, Carlos Sagastibeltza eta Jose Luis Larralde (Leitza)

Sekzioak:

Kadete eta jubenil mailako txirrindulari taldeak.

Cristina Saralegi, Eduardo Eugi eta Patxi Larretxea garaile Sanferminetako probetan

- Leitzarrak Emakumezkoen I. San Fermin Saria irabazi zuen
- Igantziarra eta arraioztarra Nafarroako txapeldun lasto eta harri altxatzen

Uztailaren 13an jokatuz ziren Iruñeko Foru Plazan Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatutako hainbat txapelketa.

Leitzako Kristina Saralegi eraman zuen emakumezkoen San Fermin I. Aizkora Saria. Hau izan da emakumezkoek aizkoran egin duten lehen txapelketa eta Euskal Herrian aritzen diren hiru emakumeak lehiatu ziren. Saralegi 8'23" behar izan zituen 45 ontzako hiru enborrak mozteko. 22 segundu bertzerik ez zizkion kendu Elosiagako Itziar Goenagari. Maika Ariztegi iturendarra motelxerago ibili zen eta 13 minutu behar izan zituen proba burutzeko.

Txinga eramaten Patxi Larretxeak jantzi zuen txapela, Petrirenak baino 3 metro eskas gehiagorekin. Ez zen arraioztarraren txapel bakarra izan, harrijasotzen ere 28 jasoaldi eman baitzizkion 100



Eduardo Eugi eskuratu du berte urte batez Nafarroako lasto altxatze txapelketa Arg: Oskar T.

kiloko harriari. Latasko 20 eman zizkion.

Nafarroako lasto altxatze txapelketan 7 kirolari aurkeztu ziren eta horietatik 6 igantziarrak ziren. Azken bi urtetan bezala, Eduardo Eugi

suertatu zen txapeldun, bi minutuko txandan 45 kiloko fardoari 16 jasoaldi emanaz (Iñaki Bereauk baino bat gehiago).

Hirugarrena Odieta-ko Juberana izan zen eta



Cristina Saralegi lana gogotik egin behar izan zuen Itziar Goenagari irabazteko Diario Noticias

ondotik sailkatu ziren Etxarte, Telletxea, Sein eta Zelaieta.

PERURENA SEMEAK 140 KILO JASO ZITUEN

Biharamonean harrijasotze erakustaldia

egin zen leku berean eta Inaxio Perurenak (Iñakiren semeak) marka berria ezarri zuen, 140 kiloko harria hiru aldiz bizkarreratuz. Hamalau urte izateko ez da batre marka kaxkarra!

Jon Bruk irabazi zuen Lesakako Txakain Saria



Uztailaren 10ean, Sanferminen barranean, jokatu zen Lesakan txir-

rindulari afizionatuei zuzendutako Txakain Sariaren 52. edizioa. Basurde elkarteak antolatutako probak 133 km. zituen eta Caja Rural taldeko Jon Bru beratarra nagusitu zen, Iberdrola taldeko Xabier Florenciori bertz segunduko alde ateraz.

Iñaki Lizaso txapeldun bakarka nahiz bikoteka



Iñaki Lizaso erremontelari doneztebarrak ez ditu aisa atzenduko aur-

tengo Sanferminak. Iruñean txapeldun suertatu da bakarka –Diario de Noticias Sarian–, nahiz bikoteka –San Fermin Sarian–. Azken txapelketa honetako finalean, Eizagirrerekin 40-26 irabazi zien Ezkurra herritarrari eta Zandiori.

Juan Carlos Garro garaile Coronas lasterketan



Juan Carlos Garro beratarra Coronas izeneko mendi bizikleta

txapelketa famatua irabazi du. Lau proba burutu dira eta horietako bat irabazi du Garrok. Azkenekoan, guttienez bigarren postua eskuratu behar zuen Libertio taldeko txirindulariak. Honelaxe egin zuen eta honenbertez, sailkapen orokorrean nagusitu zen.

Osasuna eta Errealaren aurrendenboraldia



Futbol taldeak hasiak dira beraien aurrendenboraldia prestatzen eta tal-

de handiak gure eskualdean barna dabilta. Errealak asteartean jokatu zuen Baztanen kontra eta Osasuna Etxalarren dago konzentratuta. Entrenamenduak Bera eta Lesakan eginen dituzte eta partiduren bat ere jokatuko omen dute bertan.

AGENDA EGUNEZ EGUN

BESTAK

BERA

► **Abuztuaren 1tik 6ra** Xehetasunak gehigarrian.

LEITZA

► **Abuztuaren 10etik 15era** Xehetasunak gehigarrian.

SUNBILLA

► **Abuztuaren 9tik 14ra** Xehetasunak 18. orrialdean.

BEINTZA-LABAIEN

► **Uztailaren 31tik abuztuaren 4ra** Xehetasunak 17. orrialdean.

GAZTELU

► **Uztailaren 31tik abuztuaren 4ra** Xehetasunak 19. orrialdean.

ZIGA

► **Abuztuaren 7tik 11ra** Xehetasunak 23. orrialdean.

IKASTAROK

MALERREKA

► **Abuztuaren 15a** izanen da azken eguna Ezpelura emakume taldearen ikastaroetara izena emateko. Alzariaren zaharberritzea, josteta, etxeko txapuzak eta autodefentsa daude aukeran.

BIDEOA

ARANTZA

► **Uztailaren 29an** Bideo emanaldia izanen da herriko pilotalekuan. Bertizko Partzuergoak antolatzen du.

LAXOA

IRURITA

► **Abuztuaren 2an** Baztan-Errekako XIX. Txapelketako finala jokatuko da Iruritako plazan.

ttipi-ttapa TELEBISTA



Sanestebanak!

Berako besten ondotik geldialdia egingen dugu

Abuztua ailegatzearekin batera toki gehienetan oporrrak hartzen dituzte, eta guk ere bertzeek bezala eta ulertuko duzelakoan, deskantsu ttiki bat hartuko dugu, baina trankil, segidan itzuliko baikara zuen etxeetako pantailletara.

Geldialdi hau abuztuaren lehenengo astea bukatzean egingen dugu. Honen aitzineatik, Lesakako Sanferminekin egin bezala, Berako Sanestebanetako saio berexi bat prestatzen ari gara. Hau izanen da, preziski, denbo-

raldi honi bukaera emanen dion tartea.

Hala ere, irailaren sartu bezain laster, berriz bueltatuko gara gure estudioetara, eta kamarak ongi berotu ondotik, lanean hasiko gara burubelarri. Zehazki, irailaren 14an egonen gara berriz airean, eta gainera, gure programazioa osatzeko intentzioa dugu, saio berri eta ezberdinekin. Dagoeneko ezaguna duzuen ordu erdiko informatiboaz aparte, erreportaiak, elkarrizketak eta abar luze bat izanen dira ikusgai.

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 3.600 pta.
- **Zerri gizona** (95-100): 153 pta./kiloa.
- **Zerramak**: 60-65 pta./kiloa, bizirik.




❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
- **Idixkoak:** Pta./kg. Kanal
Extra540
1.koa510
2.koa480
- **Urruxak:** Pta./kg. Kanal
Extra560
1.koa520
2.koa500
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.
- **Aretze ttikiak** (15 egun ingurukoak):
- **Nabarrak:** urruxak 16.000 eta idixkoak 28.000 Pta.
- **Mestizoak:** urruxak 30.000 eta idixkoak 42.000 Pta.
- **Behi zaharrak:**
Behi nabar gizona: 370 Pta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 400 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE

DISKAK



«Batzen»

Beti Mugan

ESAN OZENKI

Duela urte batzuk banandu ziren Beti Mugan taldeko kideak. Esan Ozenki disketxeak, hala ere, hondarribarren 22 abesti konpaktu batean bilduta berrargitaratzea erabaki du, lehenago ez baitzuten inoiz formato horretan lanik karrikaratu. Halaber, politika berdinari jarraiki, M-ak eta Kortatu bezalako taldeen diska zaharrak salgai paratu dituzte azken aldian.

Hard pop distortsionatua egingen zuten Beti Muganekoek, eta erran behar da arrakasta handirik ez zutela erdietsi bere garaian. Hori ez da garrantzitsuena, ordea, eta onartu behar da haize berriak ekarri zituztela. Pixies eta Sonic Youthen gisako taldeen arrastoari segitu zion euskal talde bakarretakoa izan baitzen, Orgasmic Toothpicksekina batera.

Pixari ezin eutsi? Bada sendabiderik



Biofeedback izeneko teknikari esker, saio batzuren ondoren zapi higienikoak alde batera uztea lortzen da.

Noizbait aipatu izan dugu sail honetan bertan menopausiaren inguruko konturik. Ikusten genuen, emakume aunitzek eritasun bat balitz bezala hartzen duela menopausia, bainan egitan ez dela hala. Izan ere, emakumeen bizitzan fase bat gehiago baita menopausia, eta ez gaitotasun bat.

Pixari ezin eustearikin, ordea, kontrako fenomeno gertatzen da. 40 eta 50 urte artean dauden emakumeetan (seitik batean) ohikoa izaten da nahi gabeko pixa isuriak izatea, eta etengabe zapi higienikoak eraman behar izaten dituzte soinean. Emakume frankok, informazio falta dela eta, emakume eta ama izate soilari leporatzen diote pixa eskapatze hori, eta erran behar da hori ez dela hala. Adituek diotenez, sendabidea duen gizarte eritasuna da pixa ezin agoantatzea. Medikuek hauen helburu nagusia, emakumeen barreneko arropatik zapi higienikoa desagertaraztea da.

40 eta 50 urte artean dauden emakumeetan ohikoa izaten da nahi gabeko pixa isuriak izatea, eta etengabe zapi higienikoak eraman behar izaten dituzte soinean.

GAUR EGUN BADU KONPONBIDERIK

Eritasun hau lehen erditzearen ondotik agertzen da. Pelbisaren oinarria hautsi eta puxikari bere lekuan eusteko ahalmena galdu egiten da. Gaur egun, hala ere, badaezpada neurriak hartzen dira umea izan eta gero, nahi gabeko pixa isuririk izan ez dadin. Gainera, behin arazoa sortu eta gero ere bada go hori moldatzerik, batere ebakuntzarik egin gabe: Biofeedback izeneko teknikari esker, saio gutti batzuren ondoren zapi higienikoak betirako alde batera uztea lortuko duzu.

AGENDA EGUNEZ EGUN

MARGOKETA

ELIZONDO

► **Abuztuaren 3tik 28ra**, Jose M^o Apeztexea eta Tomás Sobrino pintoreek margo tailerra emanen dute kanpoan. Inskripzioa: 6.000 Pta. Tfnoa: 948 581 279.

ELIZONDO

► **Abuztuaren 31 rarte**, Tomás Sobrino baztandarraren margo erakusketa, Jaime Urrutia aretoan.

KONTZERTUAK

ARANTZA

► **Abuztuaren 15ean** Etsaiak, Narco, Latzen eta Hechos Contra El Decoro taldeek joko dute.

BERA

► **Abuztuaren 1ean** Gutariko Bat, Voodoo Muzak, Borrokan eta Petti. Alzaten, arratsko 11etan.

JAIALDIAK

► **Bidasoako I. Jaialdiak** antolatu ditu Bertiz Partzuergo Turistikok. Egitaraua ezagutzeko 9. orrialdean.

GUARDIAKO BOTIKAK

061 Tfnoa. deitu behar da

► **Uztailaren 27tik abuztuaren 2ra** Elizondo (Lezaun), Bera, Irurtzun, NARBARTE.

► **Uztailaren 3tik 9ra** Etxalar, Doneztebe, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.

► **Uztailaren 10etik 16ra** Arantza, Sunbilla, Elizondo (Lezaun), Leitza eta Goizueta.

LIBURUAK



«LADIX PETRIKENEKOAK»

Luis Mari MUGIKA
EREIN

Eleberri honek mende honen hasierako lehen hogeitau urteetako euskal giroa kontatzen du. Izurrite izugarria zabaltzen da Lizarbe izeneko herrian, baserrietako ikuiluetako animalien artean, eta animaliak hiltzen doazen moduan erabat nahasten da herritarren arteko giroa. Hauek miraria eskatzen diote apaizari, baina apezak ez ditu porruak balira bezala saldu nahi

mirariak. Ondorioz, herriaren sinesmenaren desmitifikatzailerik papera du apezak. Gizarte itxia da arrontean liburuan agertzen dena. Gizonak tabernan, emakumeak bigarren planoan... harrigarriena, hala ere, Ladix ergelaren eskutik dator, sorginarekin dituen harreman lizunak eta bere arima garbia... Batez ere Mugikaren belau-naldikoentzat da egokia.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko

zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko
Iparraldetik 00-34-

948631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen dohainik argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak

- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

ETXEBIZITZAK

101 SALDU

ARANTZA. Pisua salgai. ☎ 948 634 079.

ETXEBIZITZAK

102 EROSI

LEITZA. Pisua erosiko nuke, eskura ordainduz. ☎ 948 306 502.

IRUÑEA. Pisua erosiko nuke. ☎ 948 510 167.

ETXEBIZITZAK

103 ERRENTAN EMAN

ETXALAR. Pisu moblez-tatua emanen nuke errentan. ☎ 948 635 060.

ETXEBIZITZAK

105 ETXE KONPARTITUAK

Bi pertsona behar dira Barañainen pisua osatzeko. ☎ 948 510 204.

GARAJEAK/LOKALAK

107 SALDU

LEITZAko eskola komarkalaren ondoan 20 m²ko bajera salgai. 2.800.000 Pta. ☎ 948 510 167.

Martxan dagoen komertzioa salgai **BERA**n.

56 m²ko denda eta 75 m²ko gibelaldea. Guztiz ekipatua.

ROMANO DEKORAZIOA

Legia, 1 ☎ 948-631137/630941

GARAJEAK/LOKALAK

109 ERRENTAN EMAN

BERA. 90 m²ko eta 40 m²ko bi bajera emanen nituzke errentan. Edozein denda edo bulego jartzeko egokiak. Instituto aitzinean. ☎ 948 132 266. (arratseko 8etatik 10etara).

LURRAK/ORUBEAK

112 SALDU

LESAKA. Nabaz auzoan, 5.500 m²ko lur-eremua salgai. Ura eta argia hartzeko arazorik ez. Etxea egiten ahal da. Prezio onean. ☎ 948 637 912.

LANA

302 ESKAINTZAK

HONDARRIBIAN, neska edo andre bat behar dugu, interna moduan lan egiteko. Etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. ☎ 943 639 192 edo 943 642 866.

IRUÑEAN, neska behar dugu etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. ☎ 948 581 237.

IRUN. Irailetik aurrera etxeko lanak egin eta haur bat zaintzeko neska bat behar da. ☎ 943 615839/614735.

LEITZA. Barnetegirako sukaldaria behar da, abuztuaren 10etik 28ra. ☎ 943 637 796.

ZERBITZUAK

208 BERTZELAKOAK

2D eta 3Dn marrazkiak egiten nituzke, Autocad.14-arekin. ☎ 948 637 186.

KULTURKARI

Inprenta lanak egiten ditugu

- Kartelak
- Boletokak
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean egiten dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!

☎ 631188

MOTORRA

501 SALEROSKETAK

Ford Orion eta **Alfa Romeo** salgai. 75.000 km. Merkea.. ☎ 948 451 805 (Fernando edo Begoña).

Peugeot 205 GT 5 atekoa salgai. SS-W. 275.000 Pta. ☎ 943 555 554.

MOTORRA

502 TAILERRAK

BERABI tailerrak
☎ 948 631 445-BERA
Bigarren eskuko autoak
Citroen BX Diesela
Peugeot 309
Opel Corsa
Nissan 100 NX,
osagarri guziekin

MENDAUR MOTOR

☎ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:
Vitara 5 atekoa
Fiat Uno, Fiat Tipo
Land Rover 88, Especial
Lada Niva, Renault Clio
Renault Espress D.
Suzukiak eta Vitarak,
aukeran

Berriak:

SUZUKI BERRIETAN AUKERA
BEREZIA UZTAILEAN; 500.000
PTA ARTEKO MERKEALDIA
MODELOEN ARABERA.

ANIMALIAK

601 EMATEKO

Pirinioko Mastin arrazako zakurkumea oparituko nuke. Xuri-gorria da, eta 10 hilabete ditu. ☎ 948 635 151 (Joxemanuel).

Katakume bat opari ematen nuke, etxean hazia. ☎ 948 627 618 (Nekane).

ANIMALIAK

602 SALEROSKETAK

Zezen gorria salgai. ☎ 948 599 169.

Ahuntzak (belagian ohitutakoak) salgai. ☎ 948 630 629 (arratsetan).

3 urteko behia, bere aretxe urruxarekin (2 hilabete-koa), salgai. ☎ 948 635 188.

Bi ahari eta ehizako txakurkumeak salgai. ☎ 948 634 067 (arratsaldez).

Katu pertsiarra salgai. 30.000 Pta. ☎ 948 306 502.

Behi suiza eta bi hilabete-ko bere aretxea salgai. ☎ 948 615 003 (eguerdi edo gauean).

Asto bat salgai, urtekoa, arra, sasoi onekoa. ☎ 948 397 039 (Leitza).

7 Esne-behi eta migattu bat salgai, saneamendua egina dute eta 24.000 kiloko kuota. ☎ 948 510 126.

Bolatxo more eta xuri bati lotutako **giltzaria galdu** nuen duela hilabete inguru Beran. ☎ 948 631 046.

DENETARIK

701 GALDU-AURKITUAK

Monturako **bi behor** galdu dira Arantzan, Bordalarrea auzoan. Grisa eta gorria. ☎ 948 634 207.

DENETARIK

702 SALEROSKETAK

Moble, gurdi eta auto zahar-
rak erosiko nituzke. ☎ 989 232 912.

Xafla **somier**a eta 1,20 metroko **bururdia** salgai. Gutti erabiliak, 2-3 urte. ☎ 948 453 433 Utzi mezua, deituko zaitugu.

Enpakadora salgai, Welger 45 markakoa. ☎ 948 599 169.

HARREMANAK
801 AGURRAK

Aritz Jaurena Atxa elizondarrak uztaillaren 29an beteko ditu 13 urte. Besarkada eta muxu haundi bat bere ama eta arrebaren partetik.

tetik. Arantzako **Dani Iparragirri**ri: oso ona zaude, emaidazu beste aukera bat. Zuk dakizun neskaren partetik.

Sunbillako Itziar Petrirenari, zorionak uztaillaren 18an 14 urte bete dituelako. Kontuz gehiegi ligatu gabe eta zure fansekin. Sunbillako koadrilaren partetik. Aupa Mattine!

Leitzako **Iñaki Etxegarai Miguelto**renak uztaillaren 31ean beteko ditu 12 urte. Zorionak bere aita, ama eta anaiaren partetik.



365 bideo-zinta behar ditugu ttipi-ttapa telebistan

URTEKO EGUN BAKOITZEKO BAT.

Eguneroko gertaerak eta berriak zuri eskaintzeko, puntualki, gertatu bezain laster. Zuk erositako bideo-zintarekin posible izanen da guztiona izanen den telebista biziagoa izatea.

ZINTAZ ZINTA TELEBISTA EGIN.

10.000 pezetako 365 zinta behar ditugu urte osoan gure kamarek irudiak behar bezala har ditzaten.

ZU ERE PARTAIDE.

Emandako laguntzaren seinale, ttipi-ttapa telebistaren bideo bat emanen dizugu oroigarri gisa.

NOLA EROSTEN AHAL DA BIDEO-ZINTA?.

Orri honen azpian eskatzen diren datuak idatzi eta gure helbidera bidaliz.

Bideo-zinta bat erosi nahi dut ttipi-ttapa telebistarentzat.

NORK.....
Helbidea.....

Erosi nahi diren zinta kopurua..... Zinta(k) erosi ordez, bertzelako dirulaguntza eman nahi da. Kopurua.....

Pagatzeko modua (egin gurutzea dagokion lekuan):

- Txeki bidez. Kopurua:.....
- Transferentzia bidez. Kopurua:.....



Herriko Etxeko Plaza, 1
BERA

Rural Kutxa 3008 0080 52 0200014973

Tel.: 948 631188
Faxa: 948 631291

ARANTZAKO UDALA
Arau subsidiarioak aldatzeko hasierako onespena

1998ko uztaillaren 10ean Udalak egindako Udal bilkuran ondoan dagoen akordioa onartu zuen:

- 1) Udal honek sustatutako Arau Subsidiarioen aldaketa: Sistema Orokor bezala sailkatutako lurzorua (SG1) aldatzea eta orain arte sistema Orokor bezala zegoen inguruan osatua handitzeko aukera ematea bere jabeari (UA4 eta UB8) hasiera batez onartzea.
- 2) Espedientea jendaurrean paratzen da hilabetez, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik kontaturik, interesatuek aztertu eta egoki juzkatzen dituzten alegazioak egin ditzaten.

Arantza 1998ko uztaillaren 23an, Alkatea, Jose Ramon AMOROS

IGANTZIKO UDALA
Xehetasun azterlanen hasierako onespena

Igantziako Udalak, 1998ko uztaillaren 17an egindako osoko bilkuran, honako erabakia hartu zuen:

- 1) Katastroko 1. poligonoaren 395 eta 135 lurzatietako xehetasun azterlana onartzea hasiera batean, Eulogio Mitxelena Ordoki jaunak eta Celia Etxeberria Iguzkiagirre andereak sustatua.
- 2) Xehetasun Azterlana jendaurrean hamabortz egunez paratzea, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontaturik, interesatuek aztertu eta bidezko alegazioak aurkez ditzaten.

Igantzin, 1998ko uztaillaren 21ean, Alkateordea, Ramon RETEGI ITURBIDE

Hemendik aitzinera argazki bakoitzarekin batera 35 Ptko 6 seilu (210 Pta./8 libera) bidali behar da. Gainerakoan ez dira argitaratuko. Hori bai, argazkiak TTPI-TTAPA TELEBISTAN ere aterako dira.

Argazkiak berreskuratzeke, bidali sobrea zure helbidearekin.



Ane eta Idoia Iparragirre 7 urte bete dituzte uztailearen 27an. Zorionak Oihane eta familia guziaren partetik.



Mikel Telletxea Goienetxe 4 urte beteko ditu abuztuaren 10ean. Zorionak Oier eta Hegoaren partetik.



Beñat Irazoki Arburua beratarrek 7 urte bete ditu uztailearen 12an. Zorionak Fernan, Matxus eta Ainhizeren partetik. Muxu haundi bat.



Jon Ander Bengoetxea Azkarragak 3 urte bete ditu uztailearen 10ean. Zorionak bihurri. Familia eta batez ere aiteziren partetik.



Maialen Iantzi berroetarrek urteak bete ditu uztailearen 13an. 5 muxu eta zorionak potxola!!!



Iñigo Urkizu Albistur 4 urte beteko ditu abuztuaren 5ean. Zorionak eta muxu bat Goizuetako familiaren partetik.



Unai Alberdi Albistur 3 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat Goizuetako familiaren partetik.



Olatz Eskalada Lertxundi elizondarrak 11 urte beteko ditu abuztuaren 16an. Zorionak familiaren partetik.



Pedro Irigoien Iraola beratarrek 68 urte beteko ditu abuztuaren 11n. Zorionak emazte, semeak eta Aintzarenen partetik.



Irantzu eta Maddi Mikelarena Erdozain beratarrek uztailearen 20an bete dituzte 2 urte. Zorionak familiaren partetik.



Juanita Legarreta Mitxelena aranoarrak abuztuaren 31ean beteko ditu urteak. Zorionak zuk dakizun beratar baten partetik.



Joxe Legarreta aranoarrak abuztuaren 29an beteko ditu urteak. Zorion mila bat zuk dakizun beratar baten partetik.



Maitane Alzuri Otxotekok 5 urte bete ditu uztailearen 7an. Zorionak bere familia guziaren partetik.



Mirari Morante beratarrek 17 urte egin ditu uztailearen 27an. Zorionak eta egun on bat pasa. Aita eta amaren partetik.



Mirari Morante beratarrek 17 urte egin ditu uztailearen 27an. Zorionak eta egun on bat pasa. Osaba eta amatxiren partetik.



Joxepa Etxenike Zubietak uztailearen 17an bete ditu urteak. Zorionak bere alaben partetik.



Ana Sein igantziarrak, uztailearen 25ean urteak bete ditu. Zorionak bere koadrilaren partetik. Muxu.



Olaia Matxikote Seinek 6 urte bete ditu uztailearen 21ean. Aunitz urtez eta muxu haundi bat Xabat eta etxekoan partetik.



Maritxu Goia Etxebeste beratarrek urteak bete ditu uztailearen 20an. Zorionak hizpa eta familiaren partetik.



Jon Ander Zapiain Azpiazu beratarrek 6 urte beteko ditu abuztuaren 10ean. Zorionak atta, ama eta lehengusuen partetik.



Ainhoa Goñi Petrirena beratarrek 21 urte beteko ditu uztailearen 29an. Zorionak Joaneta eta Nahiaren partetik.



Mikel Iñiguez Susperregi beratarrek 9 urte beteko ditu abuztuaren 11n. Zorionak familiaren partetik.



Juani Hinojosa beratarrek 44 urte bete ditu uztailearen 29an. Zorionak Mikelen partetik.



Eneko Martinez Fagoaga beratarrek 6 urte bete ditu uztailearen 29an. Zorionak familiaren partetik.



Ixone Telletxea beratarrek 8 urte egin ditu uztailearen 21ean. Zorionak familiaren partetik.



Garbiñe Arizteabal Pika-bea beratarrek 15 urte bete ditu uztailearen 26an. Zorionak Iñaki, ama eta izeba-osaben partetik.



Urko Mitxelena Larralde beratarrek 4 urte bete ditu uztailearen 18an. Zorionak eta muxu bat gurasoen partetik.



Maite beratarrek uztailearen 31ean 20 urte beteko ditu. Zorionak Iñigo eta Rafaren partetik.



Argiñe Ordoki Urkijo lesakarrak 20 urte bete ditu uztailearen 23an. Zorionak eta muxuak!



Maddi Sese Agara beratarrek 6 urte beteko ditu abuztuaren 10ean. Zorionak atta, ama eta Arantxaren partetik.



Argi Agara Salaberri beratarrek 11 urte beteko ditu abuztuaren 6an. Zorionak eta amaren partetik.



Sara Maritxalar Salaberri igantziarrak 2 urte beteko du abuztuaren 5ean. Zorionak eta muxu bat familiaren partetik.



Teresa Rojo Larralde lesakarrak 4 urte beteko ditu uztailearen 26an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



Mikel Alzuri Makuso aurtiztarrak abuztuaren 6an beteko du urtea. Zorionak guraso, losu eta familiaren partetik. Muxu bat.



Aitana Mañeruk uztailearen 29an beteko ditu 9 urte. Zorionak Irati, Kontxi eta Angelen partetik.



Eguzki Irigoien Juanena donamariarrak 9 urte beteko ditu abuztuaren 9an. Zorionak guraso eta familiaren partetik.



Jokin Iantzi beratarrek 10 urte beteko ditu abuztuaren 2an. Zorionak familiaren partetik.



Naiara Arozeari zorionak uztailearen 26ean 12 urte bete dituelako. Muxu haundi bat familiaren partetik.



Antonio Maritoren beratarrek urteak beteko ditu abuztuaren 10ean. Zorionak familia eta bereziki biloben partetik.



Fermin Maritoren Larralde beratarrek urteak beteko ditu abuztuaren 1ean. Zorionak! Elsa, Harri eta familia.



Lurdes Otxoteko eta bere alaba **Iratzi Urreaga** burlatarrek abuztuaren 20 eta 26an beteko dituzte urteak. Zorionak eta muxu pare bat Garazi eta Martinen partetik.



Alainea Iturria Aginaga arantzarrak 4 urte egin ditu uztailearen 25ean. Aunitz urtez familiaren partetik.



Juana Mari Olaizola zugarramurdiarrak uztailearen 22an bete ditu 28 urte. Aunitz urtez! Alizia.



Urdazubiko Silvia Olaizolari zorionak uztailearen 24ean 18 urte egin dituelako. Alizia.



Martxel Rodrigerez uztailearen 30ean bete ditu urteak. Zorionak eta aunitz urtez etxekoan partetik.



Naroa Etxarte Etxenike urteak beteko du abuztuaren 18an. Zorionak.

MUEBLES MUEBLES

mobleak erakortzea!

Bidasoa, 45-60

Tfnoa: 948 630 537

BERA



OFERTAK



**SOFA-OHATZEA
CLIP-CLAP**

44.990 Pta.

**KOLTZOIA, SOMIERRA,
HANKAK, BURUKOA**

90 Zmkoa: 16.990 Pta.

105 Zmkoa: 18.480 Pta.

3 martxako

Haize Dorrea opari

